



uk

93. zenbakia / 2006 otsailak 1



38 € **Prezioa**

36 € **Harpidedun prezioa**

Hartu zure ardi errimesa  
eta ibilbidea jarraituz...  
segi Jakue bidean beeeera.



# ArdiBidez

mahai jolasa

ESKAERAK: Tel. 943 371 545 • www.argia.com • denda@argia.com

## UK galeria > Aitor Galbarriartu



Urte berriagaz batera ataltxu berri bat zabaldu gura izan dugu UKn. Aurrerantzean aldizkari honetako azala *arte galeria* bihurtu gura dugu. Zenbaki bakoitzean nagusiki eskualdekoak diren irudi sortzaileen lanak erakutsiko ditugu *UK galeria* txiki honetan. Argazkilari, ilustratzaile, margolari eta abarren lanak eta egileak ezagutzera ematea da asmoa.

Gure lehenengo gonbidatua Aitor Galbarriartu (Sopela, 1965) da. Lanbidez kamera operadorea da Aitor eta fotografiarako zaletasun handia dauka betidanik. Bere lanak han eta hemen erakutsi ditu, besteak beste, Sestaon, Hernanin edota Bilbon. Gainera, sari asko eskuratu ditu bere lanakaz, berbarako, Gorlizko udalak antolatzen duen leihaketan makina bat sari jaso ditu, Getxosport saria birritan irabazi du... Azaleko argazkiak, EHUko naturari buruzko fotografia saria eskuratu zuen.



«Bururik nekatzen ez duenak, hankak nekatu behar» Euskal esaera zaharra

## Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Lanbroa Plentzian. Asier Mentxaka.
- 6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Etorkinak, Ekain Larrinaga. Photoshop.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Hirutasun elizaren kanpandoretik.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Lontxo Zugaza. A. M.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

### SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Galeako olatuan, Asier Mentxaka.
- 28. ARGAZKIA. Astotxoa Urdulizen, Jorje Perez.
- 30. BERBETAN. Unai Iturriaga, Unai Brea.
- 34. FOTOGRAFIA. Laluca & Cia.

### KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Barton Films.
- 43. MUSIKA. Musika irakurri. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Sorgintxulo gaztetxea. Liburuen erreseinak.
- 45. KIROLAK. Ixas-Argia mendi taldea.

### EUSKARAZ

- 47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

### AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardacaoren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Algotako Baserri tabernara.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Portu Zaharreko eskola, 1965.
- 54. AITORMENAK. Galder Perez.



30 Unai Iturriaga



11 Lontxo Zugazaga



24 Galeako olatuan



34 Laluca & Cia



49 Baserri taberna



54 Galder Perez

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Bea Majuelo

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezcaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Ainhoa Lorea, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

	<p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Ixasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p>		

	<p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
---	--

	<p>Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du</p>		<p>Aldizkari honek Berango Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
--	--	--	--

	<p>Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>		<p>Aldizkari honek Erandiko Berbots Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du</p>
---	--	---	---

	<p>Aldizkari honek Gatzako Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>		<p>Aldizkari honek Sopelako Udalaren laguntza jasotzen du</p>
---	--	---	---

	<p>Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du</p>
---	---

	<p>Aldizkari honek Eroski Fundazioaren Kultura Sarearen dirulaguntza jaso du</p>
---	--

	<p>94 491 13 37 uk@aldizkaria.biz</p>
---	---

gugeu

# Asmo onak

**Gure bizitza aldatzeko** eta hobetzeko asmoa eta gogoia izaten dugu lantzean behin pertsona gehienok: ohitura txarrak baztertu, hobeak gure egunerokotasunean txertatu... Ez dakigu zergatik baina badira urtean zehar norberak bere buruari zertan eta zelan hobetu behar duen gogorazten dioten data jakin batzuk (gero, baina, nekez aldatzen da bat eta gauzek bere horretan segitzen dute). Data hauek norberaren urtebetetzea, udako oporren buelta eta urte berria izaten dira jeneralean.

Urte berriari hain zuzen ere hasiera ematen diogu guk esku artean darabilzun UK berri honekin. Eta noski, gure asmo onak ere zuenganatu gura ditugu. Asmo on hauek betikoak dira, hau da, aldizkari hau hobetzea, irakurleak aldizkari honekin -apur bat bada ere- gehiago goza dezala, behingoz UK interneten eskegi... Hau guztia egiteko, jakina, baliabideak behar ditugu. Horregatik urtero legez atzera gatoz laguntza eske. Modu argiagotan esanez, aurrera segitzeko zuon diru ekarpenak behar-beharrezkoak ditugu. Hori egiteko gure bulegora deitzea besterik ez duzue egin behar. Aldez aurretik, eskerrik asko.

! Apur bat berandu bada ere, urtebarri on! <sup>4</sup>

UK-ko lantaldea

## irakurleak

**Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat. Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37**

## matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero irakurri > **berria**

[irudia]



PLENTZIA, 2006-1-19

**Lanbroa Plentzian** / Lanbroa edo lainoa, izen bi hauek hartzen ditu euskaraz fenomeno atmosferiko honek.

Airean ur-tanta guztiz txikiz osatutako esekidura edo suspentsioa da lanbroa, ikusmena eragozten duena. Metereologian, lurrazaleko ikuspen horizontala kilometro bat baino gutxiagora murritzen duena jotzen da lainotzat. Horrela deskribatzen du lanbroa zientziak. Baina hori baino gehiago ere bada. Izan ere, pertsona sentiberen aldarrean eragiteko ahalmen ikaragarria du lainoak. / Argazkia: **Asier Mentxaka**

**Leihatila**

&gt; Maddi Albizu

**Gizarte zoroa**

Gizarte modernoa kontraesanez betetako gizarte da. Bai horixe! Lehengo egunean kontraesan horien lekuko izateko aukera paregabea izan nuen. Irratia piztuta neukan eta publizitaterako tarteari hasiera eman zion lehenengo iragarki laburra entzun nuen: "Ta, tara, taraaaa... Zure hirian batera eta bestera ibiltzeko erabil ezazu garraio publikoa" zioen, gutxi gorabehera. Buru maltzur batek ongi preparatuta balego bezala, handik segunduro batera bigarren iragarkia iritsi zen: "Ti, tiri, tiriii...BWM (\*) autoak, zure hirian gora eta behera mugitzeko modurik onena". Kontraesana are gehiago nabarmentzeko, jakin ezazue piztuta neukan irratia publikoa zela. Daniel Bell soziologo estatubatuarrek *Las contradicciones culturales del capitalismo* lanean dagoeneko gizarte kapitalistak bultzatzen dituen baloreen arteko kontraesanaz ohartu gintuen aspaldi. Aipatutako iragarkiak kontraesan horien adibide ezin garbiagoak dira: nola liteke bestela 40 segunduko tartean ingurumenarekiko begirunea eta ingurumenari kalte egitera bultzatzea? Zalantzarik gabe, zorutzen ari gara. 4

\* Inori doako publizitaterik ez egitearren, ez dugu benetako markarik aipatuko.

**IRITZIA**

**Gero eta kanpotar gehiago ikusten da gure kaleetan. Etorikin larregi dagoen ustea zabaltzen ere hasia da. Honen gainean gogoeta eskatu diogu Ekain Larrinagari.**

## Etorkin gehiegi? Zenbat da gehiegi?

**Azterketa** Soziologikoen Zentroak (CIS) ezagutzera eman dituen espainiarren etorkinen gaineko iritzien datuak irakurri ostean, uste dut gogoetarako deia egin behar dugula. Etorikin larregi al daude benetan?

Espainiako Estatistika Institutu Nazionalak (INE) Estatuan dauden atzerriko biztanleen datuen berri eman du orain gutxi. Datuon arabera, Estatuko biztanleriaren %8.5 atzeritarra da, eta 1995eko %2arekin alderatuz gero etorkinen kopurua handitu egin dela baieztatu dezakegu. Horrek immigrazioak gizarte egite estrukturala izan behar duela eta jadanik badela adierazten du. Eta esan dezakegu hazkunde hori bizi dugun globalizazio ekonomiko insolidarioaren ondorioa dela batez ere.

Baina beharginak baino ez ditugu nahi? Ala prest gaude onartzeko lan-indarraren atzean bizi, erlaziozatu, maitatu, negar egin, jolastu, ikasi eta abar bertokoen espazio berean egiten duten pertsonak daudela? Nik uste

onartu ez eze, ospatu ere egin behar dugula.

CISen azterketan ere immigrazioa lehen mailako "arazotzat" aurkezten da. Baina zergatik izan behar du honek arazo bat? Ematen du hedabideek immigrazioaren alde ezkorrak baino ez dituztela ezagutarazten. Oso komunikabide gutxi ematen die lekuren bat kolektibo horrek ekartzen dituen aberastasunei. Ba al dago Bucarest non dagoen ikasteko modu hoberik ezpada eskolako ikaskide errumaniar batek azalduta?

### «Immigrazioa egite sozial bat da, ez da arazo bat»

Pertsonen integrazioak udalerriko biztanle guztien, zegoenaren eta heldu denaren, ahalegina izan behar du; izan ere, harremanak bat egite eta jakintza progresiboaren bidez normalizatzen dira.

Horrela, barregarria da tolerantzia atalasez berba egitea. Posible al da integrazioz berba egitea kopuruaren arabera? Gainera, arduragabekeria hutsa da alamarako mezuak hedatzea, batez ere eragiteko daukaten ahalmena kontuan hartuta. Immigrazioa egite sozial bat baino ez da –agian, gure herrietan azken urteotako adierazgarriena–, eta ez da arazo bat, baizik eta zuzenbide estatu sozial baten eza azalerazten duen erronka bat. Gabezia estrukturalak hobetzeko abiapuntua izan daiteke, guztiok daukagun aukera. Immigrazioa gure herrien konfigurazioan eragiten duen egite soziala denez, bada garaia administrazio desberdinek horri erantzun estrukturalak emateko, herri mailan batez ere. 4

Ekain Larrinaga  
(Gebxoko Udaleko Immigrazio teknikaria)

\* Erredakzioan itzulia eta laburtua

[lehen]



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[orain]



ASIER MENTAKA

**photoshop > parke berria Berangon**

Irudiak eta manipulazioa: A. M.

**Iraganez doa denbora\* beti / HIRUTASUN ELIZAKO KANPANDORRETIK**

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora > Bidezabalgo espaloi mekanikoa



Testua: **Xa2 Paia** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

— "Aldapa" erdaraz nola da, Bubu?  
— Jogi, galderak zer du helburu?  
— Lehenago "cuesta" zeritzon baina orain ez nago seguru. (bis)  
Beste zentzu bat hartu du, nekez nekatzen gaitu gu; malda laua sortu dugu!  
Aldapan gora lehen izan arren makinatxo bat apuru, orain nekerik ez dugu eta makinatxo bat daukagu.

Jakin dezaten Getxon gaudela, ez dela Bilbo edo Sopela guaito, romono, neguritiko eta abarren Babela. (bis)  
Ikus dakigun labela Bidezabalen itzela jarri dute pasarela!  
Logikak dio aldapan behera kaka erraz joaten dela. Getxon, ostera, gorantz joaten da beherantz joaten den bezela.

Mertxe, Iñaki, Gotzone, Jabi, Begoña, Andres, Rafael, Mari... pausorik eman gabe bidea egiten hamaika nagi. (bis)  
Bidea egin nahian handi irisgarritasunari zer egiten duten, adi: igogailu bat jartzen diote nekearen aldapari eta "Aldapas" deitzen diote lau-laua den auzoari!

*\*Doinua: Naufragoarena*

## gaztetxeak > barriak barri...

**Mentxakabari eta Ganebarri.** Algortako Gazte Asanbladak eta Sopela eta Urdulizko Gazte Asanbladak berriro ekin diote lanari. Udondo gaztetxeari sortu zaizkio bi anaia berri... Baina gu ez gara bertsolari, hala ere, modu umil honetan gura diegu esan ondo etorri! Algortako gazteek San Martin kaleko eraikina bihurtu dute gaztetxe eta Sopela eta Urdulizko gazteek Igeltsera gaztetxea zenaren aurre-aurrean dagoen etxea. Hasi dira batean eta bestean gazteak konpontze, antontze, prestatze... lanetan eta dagoeneko hainbat jarduera eta ekimen ere antolatu dituzte. Alabaina, gutxi iraun du lasaitasunak eta Algortakoaren kontrakoez ozen entzunarazi dituzte euren oihuak... Ez dakigu haizeak galduaraziko dituen ala hau irakurtzerakoan lerrook iraungita-edo zaharkituta lotu diren. Gu ikustezin eta forma bakoaren alde! m



Algortako Mentxakabari gaztetxea eta Sopelako Ganebarri

## mendia > Patagonia aldera joan dira Pou anaiak



**Pou anaiak** puntako eskalatzailak kontinente bakoitzeko paretarik esanguratsuenak eskalatzeko dabilta "7 paretak, 7 kontinente" izeneko proiektuarekin. Yosemite, Bulnesko Naranjoa, Pakistango Trango dorrea edota Tasmaniako Totem Pole igo dituzte daborduko. Eurekin batera eta ekintza gogoangarri hauek iruditzen jaso zeko Jabi Baraiazarra areetarra ibili da azken espediziotan. Bada orain Ameriketara abiatu dira (urtarrilaren 20an). Han, Patagonia aldean, Fitzroy edo Cerro Torre ibilbideak egiten ahaleginduko dira. Itzulitakoan han egindako argazkiak ikusi ahal izango dituzue UKn. m

Jabi Baraiazarra, Pou anaien inguraturik

# ARLAN



Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 471 12 44 / [www.arlan-ser.com](http://www.arlan-ser.com) / [arlan@arlan.biz](mailto:arlan@arlan.biz)

## GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13      T: 460 02 88  
GETXO      ALGORTA

## Egunkariak prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!*

[talaia]

## bertsolaritza > Joseba Santxo saritu egin dute



**Joseba Santxo** algortarra izan da aurten saritua Taket Bertsolaritza Alkartek urtero antolatzen duen San Antontxu bertso-paper lehiaketan. Urtarrilaren 15ean egin ziren lehiaketaren sari banaketak. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, aurtengoa, 8. edizioa, alegia, parte hartze aldetik orain arteko handiena izan da. Emandako datuen arabera, 38 izan dira lehiaketak jaso dituen bertso-sortak. San Antontxu lehiaketak atal bi bereizi ohi ditu eta Joseba Santxo getxoztarra, helduen atalean suertatu da irabazle. Sari bezala, 360 euro eman dizkiote, baita Taket Bertsolaritza Alkarteko ikur eta ezaugarria den Taket ederra ere. <sup>m</sup>

Joseba Santxo eskuetan Taket saria daukala



## armarriak > berango, historia laburreko ikurra

**Irudian** ikusi ahal den moduan, Berangoko armarrria, hiru mendi edo haitz berdeen gainean ezarrita dagoen urre koloreko dorre batez osatua dago erdigunean. Kanpoko aldean, berriz, armarrria inguratzen duen marko gorri bat ikus daiteke eta marko horretan zehar urre koloreko zortzi ikoroski. Horri guztiari gurutze handi batek eusten dio. Bizkaiko udalerrri honetan jasota dauden datu historiko ofizialen arabera, irudian agertzen den armarrriaren jatorria aurkitzeko, joan den mendeko hasierako hamarkadetara baino ez dugu jo behar. Izan ere, 1926an erabili zen lehenengoz, gaur egun indarrean dagoen armarrria. Urte hartan, Udalak Erandioko Ikaza leinuko ikurra aukeratu zuen Berangoko bereizgarri bezala erabiltzeko eta hori da, hain zuzen ere, urteetan zehar armarrri ofizial modura mantendu dena. <sup>m</sup>

[erretratua]



Sermoian esandakoagaz lotura daukan bertsoen bat kantatzen du beti Lontxo: "Ez bat-batekoa, aurrez idatzitakoa baizik"

## Lontxo Zugazaga > Andra Mariko abade bertsozalea

**Gamiztarra da,** 62 urte dauka eta Getxoko Andra Mari parrokiako abadea da irailetik. Bertsozale modura aurkeztu dizuegu Lontxo Zugazaga, baina "zale" amaiera daukaten berba gehiago erabil genezake bera deskribatzeko: mendizale, musikazale, euskaltzale... Baina hori ez da nahikoa, askoz gehiago ere bada-eta gizon ipurterre hau. Beraren kurrikulumak zur eta lur utzi gaitu. Irakasle hamaika lekutan, Biblia itzultzaile, katekesi arduradun Bizkaian, bikario, abade hainbat herritan... gauza larregi denak hemen agertzeko. Eginkizun horietako batzuk utzita dauka dagoeneko, baina asko dira oraindik agenda gizentzen diotenak. Bildurrik ez beharri, askok aurrejubiliazio hartzen duten adinean. "Gauza asko egin behar da ez zahartzeko", diosku. Barriketaldi atsegina egin dugu beragaz; abade ona legez ahozkoan maisua da, entzulea liluratsen dakien horietakoa. Baina buelta gaitezen hasierara: bertsozalea da Zugazaga, eta zaletasun hori ez dauka bere kolporako bakarrik. Mezetara ere eroan du, euskarazkoetara behintzat. Sermoian esandakoagaz lotura daukan bertsoen bat kantatzen du beti. "Ez bat-batekoa, aurrez idatzitakoa baizik", argitu du. Herritarraz hartu-emon zuzena daukan Eliza gura du Getxoko abadeak, eta jendea gustura egon dadila mezatan. Horretarako dira, besteak beste, bertsoak. Vatikanoko II. Kontzilioak orain 40 urte inguru erabaki zuen meza santua herriari hurbildu behar zitziola, berbaketatik hasita. Zugazagak ulertu du hori ondoen, antza. <sup>m</sup> Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

**DIDAK**  
**hamilton**  
**IDIOMAS**

**Ingelesa, Frantsesa eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
didakhamiltom@euskalnet.net

**VASCASA** inmobilia -

Vascasa Sopelanak irabazien %3 bezeroak aukeratzen duen Gobernuz Kanpoko Erakundeari ematen.

- Zure etxebizitzaren dohainezko balorazioa
- Vascredit finantziarioa, zure neurria
- Zure salerosketen kudeaketa osoa
- Zure etxebizitza saldu baino lehen, jarri gurekin

Eleizalde kalea z/g. 48600 Sopelana  
t.: 94 676 37 08 - Fax: 94 676 50 18 - sope-

# Kultur etxeak eta liburutegiak iaz

**356.000 lagun** hurreratu ziren pasa den urtean kultur etxeek antolatutako **380 ekimenetara**, eta Getxoko liburutegien zerbitzuek **239.000 erabiltzaile** izan zituzten

Getxoko kultur etheen eta liburutegien zerbitzuak erabilitako eta ekimenetara hurbildutako lagunen kopuruak, gutxi (%1), baina gora egin zuen 2005ean aurreko urteko (2004) datuakaz alderatuz gero: **380 ekimen antolatu zituzten; liburutegiek eskainitako zerbitzuek eta ekimenek 239.000 erabiltzaile izan zituzten eta 356.000 lagun izan ziren kultur jardueretara hurbildu zirenak.**

Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak argitu duen legez datuok balioztapenak dira, "udal teknika-rien estimazioak; ikuskizun batzuek izandako ikus-entzule kopurua erraz jakin daiteke batez ere onlinditutakoak izan badira; baina gainontzekoen datu zehatzak ezin daitezke eman".

Getxotik kanpo ere ezagun diren udako jaialdien zikloek, blues, jazz, folk eta habanera jaialdiek, gutxi gorabehera 71.000 lagun bildu zituzten. Erdi Aroko Azokara 50.000 pertsona hurbildu ziren; San Lorenzo nekazaritza azokak 18.000 batu zituen; Artisautza Azokak eta Komiki Aretoa hamabosna mila kide; eta Getxoartek 6.000 inguru zale. Antzerkiari dagokionez, Antzerki Jardunaldiek zein urte osoan eskainitako antzerki ikuskizunek kontuan hartuta, denetara 11.900 ikus-entzule erakarri zituzten. Zine zikloek, Cinema Paradisok, Zine Klubak eta Domeketako Haur Zineak ere ikusle kopuru estimagarria izan dute; iaz Areetako Gran Cinemak atek itxi bazituen ere. Horrez gainera, aipatzekoak dira Getxolandiar bertarutako 50.000 gaztetxoak, baita Errege



Getxoartek 6.000 lagun erakarri zituen

Magoak agurtu zituzten 30.000 ume eta nagusiak ere. Antolatutako erakusketek ere merezi dute aipamena, 2004an baino ia zenbaterako bikoitza erakartzea lortu dute-eta.

**«Blues, jazz, folk eta habanera jaialdiek 71.000 zale erakarri zituzten»**

Bestalde, bi izan dira pasa den urtean, arrazoi desberdinengatik, bertan behera gelditu diren egitekoak: Txotxongilo Eguna (antolatzaileen erabakiz) eta Enkante Azoka (Udalak erabakita).

## Liburutegiak 2005ean

Getxoko lau liburutegien zerbitzuak erabili edota haiek antolatutako ekimenetan parte hartu dutenak 195.000 pertsona izan dira,

azterketak prestatzeko urtean zehar liburutegietara jotzen dutenak kontuan eduki barik. Osterantzean, Letren Terrazetan (Udako liburutegiak) 29.000 irakurzaile batu ziren, eta horren albotik, Liburu Azokatik 15.000 bisitari pasa ziren. Amaitzeko, herriko taldeek edo elkarteek prestatutako ekintzetarako 1.988 gela-eskari izan dituzte kultur etxeek (1.667, 2004an). m

## Datu batzuk

- Udako musika jaialdiak 71.000 zale.
- Erdi Aroko Azokak 50.000 lagun.
- Komiki Aretoa 15.000 lagun.
- Antzerki ikuskizunek 11.900 lagun.
- Getxolandiak 50.000
- Letren Terrazek 29.000 irakurzaile.
- Liburu Azokak 15.000 bisitari.

## Musikoterapia ikastaroa

doan euskaraz eta gazteleraz otsailetik aurrera



Musika ikastaroko arduradunak Villamonten

**Musikak emozioen** hariak dardarazten, mugiarazten dituela diote. Musikoterapia, zelan edo halan, musikaren bidez emozioak azalarazteko moduak, bideak eskaintzea ei da. Berango, Bilbo eta Txileko hiru gaztek Maite Zornotza, Olatz Gabiria eta Lutxok (musika irakaslea, emagina eta musikaria) musikoterapia master batean dabilta eta bertan ikasitakoak praktikara erotea erabaki dute. Musikoterapia ikastaroa eskainiko dute Villamonteko kultur etxean doan (Larrabasterran eta Barakaldon ere taldea sortzen bada) otsailetik aurrera. Eskolak astean behin izango dira eta ordu pasatxoko

iraupena dute.

Ikastaroaren hartzaileak mota desberdinetakoak izan daitezke: haurdunak, gazteak, autismoa dutenak, nagusiak... eta taldearen izaeraren araberrako teknikak eta musika erabiliko dituzte musikoterapia ikastaroko gidariek. "Terapia osagarria da, talde bakoitzak omara, helburu ezberdinak ditu lortzeko: arnasketa, erlaxazioa, luzamenduak... eta autokontfidantza ere lantzen dira", azaldu du Zornotzak. Musika gain "abesteko ohitura berreskuratzeko" oso garrantzizua dela adierazi du. m

Harremanetarako: 665 757 506

## GETXO BIZIA PORTU ZAHARREKO ZABALGUNE PUBLIKO BATEN ALDE

Getxo Bizia herri plataformak Portu Zaharreko Etxetxun informazio batzarra egin berri du. Hantxe, Udalak antzinako igerilekuen orubean proiektu pribatuak sustatzeko asmoz egin nahi duen hiri plangintza aldaketa zehatzaren aurrean alegazioak aurkezteko asmoa agertu du. Orain, berriz, herritar talde bat informazioa zabaltzen eta eremuaren izaera publikoaren aldeko alegazioak egiteko eredu bat banatzeaz arduratu da; gainera, herritarrei eredia sinatzeko deialdia egin die.



## GETXOKO UDALA, ZILARREZKO Q-AREN BILA

Euskalit-Kalitaterako Euskal Erakundeak, Europako EFQM delako bikaintasunaren ereduaren barruan ematen duen Zilarrezko Q ziurtagiria lortzeko saiakera egingo du aurtan Getxoko Udalak. Lortuz gero, ziurtagiria eskuratzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo udalerrria litzateke Getxo. Iñaki Zarrako alkateak saiatze hutsak merezi duela adierazi du.

RENAULT **ocasión**

### IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

"0 Km" dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearrekin.

Getxo I Institutuaren ondoan

**RENAULT  
BILBO BERRI**  
Bikarrek, s/g - ALGORITA  
Tel.: 94 430 68 81  
Jon Arróspide, 20 - BEUSTO  
Tel.: 94 448 39 00

## Galeako Fortea

garbitzeko lehiaketa

**Ez da** Getxoko Udalak Galeako fortearen aurpegia eta inguruak garbitzeko lanak emateko lehiaketa deitzen duen lehenengo aldia. Getxoko alkate Iñaki Zarraok azaldu duenez, *“aurrekoan lehiaketa hutsik gelditu zen eskaintza ez zelako itxia; orain, ostera, prozedura negoziatua eskaintzen da. Hala ere, aurrekoaren aurrekontu berdinagaz atena dugu”*. Galeako Fortean (1742) egingo diren lanak arkeologo baten gainbegirapean egingo dira, eta bide batez Bizkaiko Jaureriak eraikitako “gotorlekurik garrantzitsuenetakoaren” ikerketa ere egiteko eskaria egin dute: antzinako aztamarik ez badago ere, lubakia eta itsasora ematen duten harresiak ia betikoak diren eta abar jakiteko. m

Galeako Fortean gaur egungo itxura





**GALEA  
ASESORES, S.L.**

**AHOLKULARITZA  
JURIDIKOA, FISKALA  
LABORALA ETA KONTABLEA**

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA  
% 94 460 95 12

## Belatrix, Getxoko Opera lantegia

“Operak euskaraz kontatzeaz gain, euskaraz abestea ere bada gure aurtengo erronka”



Getxoko oholtzan berriro ere egotea gustatuko litzaieke. Informazio gehiago: [www.belatrix.bravehost.com](http://www.belatrix.bravehost.com)

**Belatrix Getxoko Opera Lantegia orain dela 5 urte sortu zuten Andoni Martinez tenore getxoztarrak, Miguel N'Dong piano joleak, eta Ana Isabel Salomon sopranoak. Belatrix umeen artean opera hedatzeko asmoz jaio zela diosku Martinezek.**

—Umeei begirako opera, zelan egiten da?

—Hirurok nagusientzako kontzertuak, lirikoak, ematen ditugu eta opera generoa umeen artean guztiz ezezaguna zela ikusita euren gure hurbildu behar zela erabaki genuen, hori bai, eurentzat egokitu ostean. Egokitze prozesu horretan testuak moldatzen ditugu umeek uler dezaten; ipuin-kontalariak daude, oso ondo funtzionatzen du, umeak ohituta daude kontalarien jardunera eta istorioa jarraitzea errezago egiten zaie. Operak berak kontatzen duen istorioa ere sinplifikatu egiten dugu, esaterako, aurtun Mozart jaio zela 250. urteurrena ospatuko da eta *La flauta Magica* obra egokitu dugu, obrak argumentu nahiko korapilatsua daukanez. *La flauta Magica*ren argumentua zoz zelan jarraitzen duen istorio bat asmatu dugu.

Ipuin-kontalariak abeslariak diotena azaltzen diete umeei; hala ere, nik uste ez litzatekeela guztiz beharrezkoa umeek opera ulertzeko, baina errazagoa da, eta abeslariaren eta umeen arteko zubi lana egiten dute.

—*Hansel eta Gretel* euskaraz eskaini duzue Getxo Antzokian, zelan joan da?

—Kontalariak euskaraz dihardu, baina abeslariok gaztelaraz. Euskaraz abestea da orain gure erronka, lan bi euskaraz abestea eta kontatzea: *Erase una vez la opera* eta *El mago Colaz*. Horrela egiteko eskaria eduki dugu, baina nahiko gaxa da, ez dagoelako kantari liriko euskaldun askorik! Bestalde, *Hansel eta Gretel*-ek arrakasta izan duela esan dezakegu.

**«Gureak ekoizpen merkeak dira, bi ipuin-kontalarik baino apur bat gehiago»**

—Zein da zuen opera eskaintza?

—6 lan eskaintzen ditugu: *El pequeño barbero de Sevilla*, *El gran mago Colaz*, *Erase una vez la opera*, *Hansel y Gretel*, *La Sirenita*, eta *La Flauta Magica*. Antolatzaileentzat ekoizpen eta ikuskitze merkeak dira, 2 ipuin-kontalarik baino apur bat gehiago balio dute, gehiagorik ez. m

## Gaztaia Azoka Algortan

Oinetako usaina lurrin jangari bihurtzen duten aztiak **otsailaren 10, 11 eta 12an** bilduko dira



la 20.000 lagun batu zituen iaz Gaztaia Azokak Algortan

**Pasa den urteko** “arrakasta itzela” kontuan hartuta, aurton ere Gaztaia Azoka antolatzea erabaki du Getxoko kultur etxeak. Zezeilaren 10, 11 eta 12an (barikuan 12:00etatik aurrera, ostera 11:00-15:00 eta 17:00-21:00) ospatuko da gaztaiaren erresumako egun handia Algortako Geltoki plazan. 10 bat izango dira gaztaiagileen txolatxoak, ekimena koordinatzeaz arduratzen den J.F. Eventos-eko Fernando Estebanek jakinarazi duenez, *“eta 60 gaztaia mota baino gehiago dastatzeko aukera egongo da”*. Txolatxoak gaztaiaren jatorriaren arabera antolatuko dituzte, eta jatorri bakoitzeko gaztaia mota bat baino gehiago egongo da dastagai: Casarko opilak (Caceres), Gi-

puzkoa eta Arabako Idiazabal (Bizkaikoa, agian), Erronkarikoak (Nafarroa), Bizkaiko Erreketa ahuntz-gaztaiak, Galiziako titi-gaztaiak, Kantabriakoak eta Asturiakoak.

“Gazta ondoren, zahatoari muin” dio ohiturak, hala ere, Estebanek azaldu moduan, *“ez dugu ardaoa eskainiko, plaza inguruan badina hainbat taberna eta eurek ere azokan lekua daukate”*. Iazko azoka benetan atarrendu handikoa izan zen, *“gaztaiagile askok dena saldu zuten, adb. Galiziakoak bidaiari egin zuten gauzuez, biharanumeean zer saldu edukitzeke; gainera esan daiteke jendeak badaukala gaztaiaren gainerako jakintza, interes handiagaz galdetzen zuten”*, diosku Estebanek. m

## PIRRITX ETA PORROTX IKUSTEKO SARRERAK AGORTZEAR DAUDE

Otsailean zehar, Kultur Etxearen programazio agendaren barruan, “Pirritx eta Porrotx” pailazoak hiru egun ezberdinetan ikusteko aukera egongo da Getxon. Otsailaren 3an, barikua, Getxoko Antzokian aurkeztuko dute “Maite zaitut” izeneko haurrentzako saioa 18:00etan. Otsailaren 4an, zapatua, emanaldia bikoitza izango da, 12:30ean lehenengo eta 18:00etan bigarrena. Eta domekan, otsailaren 5ean, berri ere 12:30ean eta 18:00etan. Sarrerak 3,50 euro kostatzen dira eta dagoeneko agortzeaz daude.

## SOBRE LOS PREJUICIOS DEL TABACO ANTZEZLANA GETXO ANTZOKIAN

Jone Irazabalek zuzendutako antzezlana gazigozo hau datorren otsailaren 11n ikusi ahal izango da Getxoko Antzokian 20:00etan. Txalo Produktzioak-en eskutik iristen zaigun lan honek, tabakoaren eragin kaltegariei buruzko konferentzia bat hartzen du aitzakiatzat, bizitza, zoriontasuna eta gizakiari buruzko hausnarketa berezi bat egiteko. Zeregin horretan, Ramon Bareak antzeztzen duen pertsonaia azalduko zaigu taula gainean. Sarrerak 7-9 eurotara eskura daitezke Getxoko kultur etxean.

## EMAKUME BIDEAK ANTZERKI ZIKLOA AMAITUTZAT JO DUTE

Getxoko Antzerki Eskolak amaitutzat jo du andrazkoen presentzia eszenikoa sustatzea xede zuen egitasmoa, aurtengoa izan den 6. edizioaren ostean. Arantza Yurre, eskolako zuzendariak, oso balorazio baikorra egin du eta proiektu berriak abian ipiniko direla aidarazi du. Egitasmoak, emakumeen ahotsa nabarmentzen duten 200 bat lan antzezteko aukera eman du. Proiektuan parte hartu duten taldeen artean, Erandioko Bonboliñak edota Getxoko Hezegaitz eta Lamiak antzerki taldeak daude.



**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 - ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokoa
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, beheko eskuina  
ALGORTA  
94 94 430 76 96



**VIEJO**

kopak eta giro jatorria

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA



Clarisa Marcos > Altzaga Ikastolako zuzendaria

“Etapa berri honi ilusio handiz ekiten diogu, eraberritzearekin bigarren lerroa sar dezakegulako”

**Altzaga Ikastolak** aurpegi berria du. Hiru urteko beharren ondoren “ikastola berria” inauguratuko dute otsailaren 2an. Eraikin nagusia goitik behera eraberritu dute eta ikastolaren ikurra zen Baserría-haur hezkuntza eta idazkaritza hartzen zituenak- gimnasio dotore bihurtu dute kanpoko itxura mantenduz. Ilusio handiz ekin diote etapa berri honi eta etorkizuna itxaropentsu ikusteko arrazoirik badute.

«Zaharberitze lanak amaituta, otsailaren 3an Altzaga Ikastola berria inauguratuko dute»

—Nola igaro dituzue berrikuntza urte hauek?

—Beharrak orain dela lau urte hasi ziren eta momentu honetan urtebete egin du, 2005eko urtarrilaren 10ean eraikin berrira etorri ginenetik. Hiru urte horietan Artatza Ikastetxean egon gara lanak amaitu arte.

—Pozik al zaudete eraikin berriarekin?

—Bai, orokorrean bai. Hasierako arazoak kenduta. Gauza berriekin gertatu ohi da, hezetasun handia geneukala. Bestelakoan oso pozik gaude.

—Zer azpimarratuko zenuke?

—Antolaketari dagokionez oso ondo egitura-tuta dago. Elbarrientzat ere egokituta dago ikastola osoa. Segurtasun aldetik ate guztiak bereziak dira haurrek atzamarrak sar ez ditza-



Gaur egun 160 haur inguru dabilta ikastolan

ten. Bestetik, baserrian gimnasioa egin dugu eta benetan primeran geratu da. Espazio zabala eta argitsuak gailentzen dira.

—Nola sortu zen Altzaga Ikastola?

—Guraso batzuen ekimenez sortu zen. Kooperatiba legez elkartu eta baserría hartu zuten zentro moduan. Eraikina martxan jartzeko guraso bakoitzak ahal zuen alorrean lagundu zuen. Euskalduna lantegietako materiala, esaterako, erabili zen aita batek ekarrita.

—Zein da gaur egungo egoera?

—1993an publiko bihurtu zen eta ordutik sare publikoan sartuta gaude. Orain, 158 ikasle ditugu Haur Hezkuntza eta Lehen Hez-

kuntzan, baina, laster kopuru honek gora egingo du. Izan ere, egindako berrikuntzekin bigarren lerroa sartuko dugu. 2. urteko gelan bi talde ditugu dagoeneko.

—Inagurazio ekitaldia egingo duzue...

—Otsailaren 2an ekitaldi ofiziala izango da agintariekin, eta 3an jai antolatuta dugu momentu historiko hau ospatzeko. Ikasle eta ikasle izandakoak gonbidatuta daude, baita guraso guztiak ere. Arratsaldeko 5etatik aurrera izango da eta hainbat gauza antolatu dugu: argazki zaharren erakusketa, haurrentzako zein nagusientzako ikustaldiak, etab. m

## Agate Deuna

Herriko abesbatzatik sortutako **Jatorrak** taldeak parte hartzen duen bakoitzean sariren bat irabazten du



Kantu txapelketa irabaztera aterako dira Jatorrak taldekoak

**Agate Deunaren** egunaren bezperan, otsailaren 4an, usadioari jarraituz herriko abesbatzak makilen danbatekoen erritmorra abestera kaleratzen dira. Jatorrak taldeko kideentzako ondo pasatzea garrantzitsuena bada ere, onartu digute lehen postuaren bila kaleratuko direla aurten. Eta ez da harrizkoa, izan ere, parte hartu duten bakoitzean eskuratu dute sariren bat. Taldeko Mari Carmen Ibañezek azaldu digunez iazkoa izan zen gozoena: “Aurreko urteetan bigarrenari atxikiak egon ondoren iaz lehenengo saria irabazi genuen”.

Taldea herriko abesbatzatik sortu zen 1998. urtean. “Guztiak herriko koruko ki-deak ginen eta solfeoko klaseetan askotan ko-

mentatzen genuen Agate Deuna egunean kantatzera irten behar genuela”. Abestea gustuko dute eta leioztarrak izanik herrian bertan abestea berezia da eurentzat. Helburua ondo pasatzea da, horregatik, egun horretan Agate Deuna aitzakiaz hartuta afaria ere egiten dute. Mari Carmenek esan digunez, urteak dira -kontserbatorio garaitik- elkar ezagutzen dutela, eta beraz, lagunekin elkartzeko eta ondo pasatzeko eguna da batez ere Agate Deuna.

Leioako abesbatzen maila oso ona da. Gure Gauzak eta Udondoko mutilak aipatu dizkigu irabazlegaien artean, Jatorrak taldearen baimenaz jakina. m

## JAZZ ETA BLUES EMANALDIK AMBIGÚ KAFETEGIAN

Jazz eta Blues musika eskaerari erantzuteko eta berau bultzatzeko asmoz Leioako Kultur Sailak, Basauriko Kultur Sailarekin eta Ametx Elkartearekin batera musika zirkuitua antolatu du. Horrela, hilabete guztietan jazz kontzertuez gozatzeko aukera izango dute leioztarrek. Datorren otsailaren 17an The Graham Foster Trio taldeak emanaldia eskainiko du Ambigú Kafetegian. Ordua: 22:00. Sarrera: 3 euro.

## ISMAEL SERRANO KULTUR LEIOAN

Datorren otsailaren 3an Ismael Serrano abeslariak kontzertua eskainiko du Kultur Leioan. Ismael Serrano Madrilen 90eko hamarkadaren lehenengo urteetan zuzeneko musika eskaintzen zuten taberna eta kafe-etxeen mugimenduan hasi zen. Urte gutxi batzuen bueltan taberna hauek txiki geratu ziren erakartzen zuen jende andana hartzeko. Handik aurrera, Ismael Serranoren izena ezagun egiten hasi zen musika munduan. “Papá cuéntame otra vez”, “Vértigo” edo “Amo tanto la vida” abestiak ikur bihurtu ziren gazte askorentzat. Ordua: 20:30. Sarrera: 15 euro

## TXOMIN RIVERAREN KANTOURI ITSASOKO UR AZPIKO ARGAZKIAK

Kantauri Itsasoa Uribe Kostako paisaiaren parte da. Askotan bere uretan murgildu eta haren olatuekin olgetan ibili gara, baina ez dugu ur azpiak ezkutatzeko duen bizitza ezagutzen. Txomin Riverak, urpeko argazkietan aditua, Kantauri Itsasoan murgildu eta urpeko irudi erreportaje ikusgarria osatu du. Erreteriariko argazkilariaren azken lana, “Kantauriko Koloreak, Urpeko Argazkiak”, ikusteko aukera dago Kultur Leioan otsailaren 19ra arte.

**ERROTULOAK**



**ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta IMPRESIO DIGITALAK egiten ditugu**

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

**udondo**  
taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

Zure publizitatearen hemen  
Zure publizitatearen hemen  
Zure publizitatearen hemen

94 491 13 37

# Nagusei gorazarrea

Euskara gordetzeagatik omenaldia egin zitzaien

Joan den urtarrilaren 21ean Goikoa, Asua eta Goierriko euskaldun zaharrentzako jaialdia antolatu zuen Erandioko Euskara Zerbitzuak. Auzo hauek herriko euskaldunenak dira eta hizkuntza gordetzeagatik, hain zuen ere, omenaldia eskaini gura izan zaie 60 urtetik gorako lagun hauei. Arratsalde osoa, azpiko argazkiek ederto erakusten duten moduan, etenbarik dantzan eman zuten erandioztarrek. Pasodobleak, euskal kantak... ez zioten ezeri muzin egin hara bildutakoek. Giroa, aparta.





## Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategiaren zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13  
F. 94 467 42 41  
ERANDIO (Bizkaia)  
Mobila  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

## Urrezko aizkora



Aizkolarien erakustaldiaren une bat

Urtarrilaren 21ean, larunbata, urtero legez, Urrezko Aizkora ekitaldiaren finalerdiak jokatu ziren Erandio Bekoan. Bertan, Arria Va eta Txapartegi bikoteak Peñagarikano eta Azurmendi bikotearen aurka jardun zuten norgehiagoka bortitzean. Bestalde, egun berean, Iñaki Perurena harrijasotzaile bikainaren semeak, Inaxio Perurenak alegia, marka-saiatzea egin zuen.

60 ontzako enborra txanda librean eta zutik moztu behar izan zuten partehartzailerek saioaren hasieran. Ondoren, txanda librean ere, oinbikoa bota behar izan zuten etzanda. Jarraian, banakakoa etorri zen kana-erdikoarekin eta azkenik, txanda libreko proba luzea. Azken proba honetan, bi bikoteek, lau kana-erdiko eta lau 60 ontzako enborrak moztu behar izan zituzten. m

## 11.000 TONA PILA BIRZIKLATU DITU RECYPILAS ENPRESAK

Asuan dagoen Recypilas S.A. enpresak, azken bi urteotan pilen bilketa era nabarmenean igo dela zehaztu du. Ihobe, Eusko Jaurlaritzako erakundeak eta Indumetal Recycling S.A. enpresak botoi pilak birziklatzeko eratu zuten Asuako lantegiak, 1993 urtetik hona, 11.000 tona baino gehiago birziklatu ditu bildutako pila eta bateria osagaien artean.



## KALITATE ETA ZILARREZKO Q SARIAK ATEGORRI-TARTANGARENTZAT

“Kudeaketaren kalitatea” adierazten duen zilarrezko Q saria jaso du Ategorri-Tartanga Goi-mailako Lanbide Heziketako Institutuak, Euskalit, Kalitaterako Euskal Fundazioaren eskutik. Bestetik, Hezkuntza Ministerioaren Estatuko Kalitate Saria ere eskuratu du ikastetxe honek. Jasotako sariek institutuak azken urteotan kudeaketa prozesuak hobetzeko egin dituen ahalegin handiak aintzat hartu direla erakusten dute, arduradunen esanetan.



## Arasa

Sukalde eta Komunitarako Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen zaharbertzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91



## san inazio

autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA



## altzaga ikastola erandio bhi



HAUR HEZKUNTZA (2-6)

LEHEN HEZKUNTZA (6-12)

BIGARREN HEZKUNTZA (12-16)

Garraioa eta jantokia

Eskolaz kanpoko ekintzak

Kukularra bidea, 8 • Tel.HH-LH: 94 467 17 05 • DBH: 94 467 15 13 • Faxa 94 467 09 36 • 48950 ERANDIO



## AGATE DEUNA EGUNEAN ABESTEKO IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Iaz 15 izan ziren Agate Deuna egunean herriko kaleak doinuz jantzi zituzten abesbatzak edo talde kantariak, eta aurton kopuruak gora egitea espero dute antolatzaileek. Martiriaren oroimenez egiten den kantaldian parte hartzeko otsailaren 3ra arte egongo da zabalik Hall Kulturalan izena emateko epea. Talde bakoitzak 180 euroko zenbatekoa jasoko du eta izen-ematean taldekideen eta arduradunaren izen abizenez gainera kontu korrontea azaldu beharko da.

## SOPELANA DA ETXEBIZITZA EROSOENAK DAUZKAN EAE-KO HERRIA

Etxebizitzen erosotasunari dagokionez, Sopelana dago Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien zerrendako lehenengo postuan, hala ondorioztatu eta baieztatu zuen Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) egindako ikerketak. Udalerrien erosotasun maila neurtzeko, besteak beste, kontuan hartzen diren etxebizitzaren ezaugarriak hurrengoak dira: azalera, antzinatasuna, gela eta bainugela kopurua eta ekipamenduak. Hala bada, Sopelana da etxebizitza erosoena dituen EAEko udalerria, ia 83 puntugaz, horrez gainera eskualdeko hainbat herri ere hurbil dauzka: Berango bigarren postuan eta Getxo laugarren postuan.

## “MAITE, MAITEA...” AMODIO GUTUNEN LEHIAKETA

II. “Maite, Maitea...” maitasun gutunen lehiaketan parte hartzeko epea dagoeneko zabalik dago eta otsailaren 8ra arte Hall Kulturalan edo Turismo Bulegoan aurkez daitezke eskutitzak. Euskaraz zein gazteleraz idatz daitezke, jatorrizko lanak izan behar dute eta ezin dira 2 orrialde baino luzeagoak izan. 2 maila daude (2 azpimaila) adinaren arabera, eta sariak otsailaren 14an emango dira.

## Aurrekontua 2006rako

Iaz baino diru gehiago izango du aurten Sopelako Udalak: **16.129.000 euro**



Aparkalekua handituko dute

**Sopelako Udalak** 16.129.000 euroko aurrekontua onartu zuen EAJ eta PSE-EE alderdien botuakaz, eta Ezker Batua-Berdeak-ek eta Sopela Aurrerak kontra bozkatu zuten. Ekonomia eta Ogasun zinegotzi Gonzalo Garciak azaldu zuenez, “*iazkoak alderatuz gero %25eko igoera izan dute*”.

Hiru izango dira zenbateko handienak jasoko dituzten alorrak: kirolak, irisgarritasuna eta kultura. Kirol sailari dagokionez aipatzekoa da Abadesoloko igerilekuen alboan eraikiko den eraikina; izan ere, gaur egungo azpiegitura txiki lotu da eta herritarren aldarrikapenei erantzuteko egingo dute berria. Irisgarritasunaren inguruan

hondartzetako gunek hartzen dute garrantzia. Arrietarako aparkalekuan 150 leku berri inguru sortzeko asmoa dute eta Atxabiribilekoan beste 50 bat aparkaleku. Gainera, Loroño aldean ere 100 bat leku paratuko dituzte aparkatzeko. Bareñoko zubia konpontzeko helburua ere badauka Sopelako Udalak, ziurrenik egurrezkoa izango dena.

Salduko inguruetan egingo den ekimen sozio-kulturalerako eraikina da Kultur arloari dagokion egiteko esanguratsua: 100 bat lagunentzako Ekintza Aretoa, gazte eta kultur taldeentzako gelak; eta bertan egongo dira ere Euskaltegia eta CEPA zentroa. m

## Bilbao Basket Eskola

Jokalariak sortzeagaz batera, gazteak pertsona moduan hezteko dute helburu



13 bat gaztetxo sopoloztar dabilta Borja Lorenzoren eskutik saskibaloian ikasten

**Bilbao Basket Fundazioak** saskibaloio eskola berriak ipini ditu martxan, horietako bat Sopelan. Eskola hauen helburu azpimarragarrienetako bat “*jokalariak sortzeagaz batera, gaztetxoak baloreetan eta pertsona moduan hezteko*” da. Hiru dira taldearen egiteko arauak: lehenengoa, “*elkar jotzea debekatuta dago eta eginez gero kanporatua izateko arrazoiak da*”, bigarrena, “*edozein enatako irainak ez dira onartuko*”; eta hirugarrena, “*barrerik ez egitea debekatuta dago*”. Sopelako eskolaren arduradun eta entrenatzaile Borja Lorenzok azaldu duen legez, “*saskibaloian jarduteaz gain, ondo pasatzea da hemen egitekoa*”.

Lorenzok berak ere saskibaloian jokatzen du, Ugeragan, badaki beraz zertan dabilen Bilbao Basket Eskolako gazteak. Bi talde dauzka bere ardurapean sopoloztarak, guztira 13 bat jokalaria: 6-11 urte

bitarteko 3 gaztetxo eta 11-15 urte arteko 10 bat neska-mutil; izan ere, talde biak mistoak dira. Sopelako Iberre institutuaren egiten dituzte saioak astelehen eta eguaztetan (18:30-20:30). Bilbao Basketeko beste eskolen aurka jokatuko dituzte partidak, eta goi mailako taldearen entrenamendua ikustera joatea eta jokalaria ezagunen hitzaldia ere antolatuko ei dituzte.

### Izena emateko epea maiatzera arte

Azarotik dihardu eskolak eta gogoan dauka Lorenzok orduan zergatik zetozen galdetuta gazteek erantzundakoa: “*ondo pasatzena eta gauza berriak ikastena*”. Zure helburua ere hori bada eta adin tarte horretan bazaude Sopelako Eskolan izena emateko epea zabalik dago: matrikulak 20 euro balio du eta hiruhilekoak 62 euro. m

[www.escuelabasket.com](http://www.escuelabasket.com) edo 902 014 357

**LAIKAK**  
**Taberna**

Bentatu, 2  
48600 Sopela  
Tif. 94.6760328

## ANDER DEVNA IKASTOLA


- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana  
Tfnoa.: 946760266 - Email: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

## JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutxa 4, Sopela  
Telf. erreserbak: 645 732 991



## 4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

**Basurto**  
Algorta S.L.  
altzariak

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

**EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA BULTZATZEKO 4.500 EURO BIDERATUKO DITU UDALAK**

Berangoko udalak Udalbide elkarteagaz sinatu duen hitzarmenak "euskara eta euskal kultura" bultzatzea eta sustatzea dauka helburu. Egiteko horretarako 4.500 euro emango dizkio Udalak Udalbideri eta hitzarmenak urte baterako iraupena izango du. Udalbide elkartearen helburua lurralde guztietako udalen arteko harreman konstruktiboa bultzatzea da; horrela, ekimen hitzartuak sustatuko dira hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiro, lurralde antolaketa, ekonomia garapena eta gizarte ongizate esparruetan, baita udalek esleitutako daukaten gai haietan ere.

**ELURRETARA TXANGOIA ANTOLATU DUTE OTSAILAREN 11RAKO**

Berangoko kultur etxeek elurretara irteera antolatu dute eta elur bila Lunadaraino abiatuko dira otsailaren 11n. Jarduera honetan izena emateko epea hilaren 9ra arte egongo da zabalik. Oraindik zehaztu barik daude ordua eta prezioa, baina informazio gehiago gura duenak eta elurretara joateko irrikan dagoenak Berangoeta edo Santa Ana kultur etxeetara hurbiltzea besterik ez dauka.

Informazio gehiago: 94 668 21 43



**Aurrekonturik altuena 2006an**  
Garapenerako Lankidetzaren proiektuetara %0,52



Udaletxearen birmoldaketaren 2. fasea gauzatzeko 1.000.000 euro baino gehiago bideratuko dituzte

**EAJ eta EAK** osatzen duten Berangoko udaleko gobernu taldeak 7.780.43 euroko aurrekontua onartu zuen 2006rako. PSEK aurrkontuek hobera egin dutela uste badu ere kontrako botoa eman zuen, EBK egin duen legez. Historian zehar onartutako zenbaterako altuena da aurtengoa, iaz baino 900.000 euro gehiago. Berangoko Udalak diru kopuru handia Udalkutxa foru-funtsetik jasoko du eta zenbaterako garrantzitsua udal-lurren besterentze edo salmentatik.

Inbertsio nagusien artean udaletxearen birmoldaketaren 2. fasea aipatu behar da (irrisgarritasuna hobetzeko aldapatxoa, igogailua...), milioi bat euro baino gehiago bi-

deratuko dute-eta. Horren ondotik, milioi erdi euro inguru Basotxu, Karabigane eta Karabiazpiko auzoak zaharberritzeko gastatuko dute. Berangoko alkate Miren Dobarane argiztapena hobetzea, muga fisikoak ezabatzea, Gizarte-ongizate sailaren egitasmoak eta Tokiko Agenda 21 goraiatu ditu 2006ko egiteko garrantzitsuen artean. "185.000 euro gizarte gastuetara bideratuko ditugu, 6.000 biztanle dauzkan herri baten-tzat hori ahalegin handia da", zehaztu du Dobaranek. Garapenerako Lankidetzaren proiektuetarako aurrekontuaren %0,52 gordeko du Udalak, iaz baino %50 gehiago eta alkateak esan du apurka %0,7ra hurbiltzen doazela. m

**Larruzko Paleta Eskola Frontoi** estali berri baten **premia** dauka Paleta Eskolak



Martitzenetan eta barikuetan egiten dituzte saioak (17:00-19:00)

**Orain dela 6 urte** inguru sortu zen Gorlizen Larruzko Paleta Eskola. Gaur egun, Juanan Beitia da Eskolako presidentea, Jon Garcia kirol zuzendaria eta Pedro Monton kirol-monitorea. Larruzko pilota erabiliz paletan jokatzen irakasten diete Gorlizko Eskolan 6 urtetik 12 urtera bitarteko gazteei, 3 maila desberdinetan: benjaminak (6-8 urte), kimuak (9-10 urte) eta haurrak (11-12 urte). Dozena bat pasatxo mutiko dabilta paleta eskuan Gorlizen, gehienak herrikoak bertakoak dira, eta Plentziakoak eta Lemoizkoak besteak.

Jokalariak, zaleak eta gogoak ez zaizkiela falta azaldu du Juanan Beitia presidentek, baina azpiegitura, pilotalekua bera, da eragozpenik handiena. "Frontoia albo batetik zabalik dago, ez dauka hormarik; eurria dagoenean ura sartzen da eta neguan batez ere anazo handiakaz, larri ibiltzen gara", dio sano arduratuta Beitiak. Zeozelan, arazoari irten-

bidea aurkitzen ahalegindu dira, "iaz olana batzukaz estali genuen alde hori, baina ez da konponbide eragingarria izan; izan ere, frontenis txapelketan konturatu ginen olanek ez zutela balio: jokalaria eta hurrenatutako zaleakaz kondentsazio eta hezetan itzela sortu zen eta hormak-eta izerditan-edo hasi ziren, putzuak sortu ziren... Pilotaleku berria beharrez-

**«Datorren urtean esku-pilota eskolak ematea zen erronka, baina ezin»**

koa dugu, itxia, urte bi daroaguz Udalarri eskatzen eta ematen du aurtun entzun gaituztela. Noizko? Hori beste kontu bat da". Datorren urterako esku-pilota eskolak ematea zen Gorlizkoen erronka, baina Beitiak dioen legez "frontoi berriari itxaron beharko; pilotak busti egiten dira, askotan tenisekoakaz jokatu behar dugu, mutikoek laban egiten dute... ez dira baldintza egokiak, bat ere ez". m

**cianoplan Reprografia**  
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Antigua Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
http://www.cianoplan.es

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernak/ak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- ermarkaketak •



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15



URDULIZ  
Telefono: 940 761 123

Ajuria  
taberna

Andrés Cortina 2  
ALGORTA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

**BARRIKA SAN BLASSETAN**

Datorren otsailaren 3an San Blas eguna ospatuko da Barrikako udalak antolatuta. Ekitaldiei Meza Nagusiarekin emango zaie hasiera 11:30ean. Ondoren Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariek emanaldia eskainiko dute, eta amaitzeko, hamaiketako egongo da trikitixaren doinuaz lagundua. Horrez gain, Iñaki Gilisastik ere, [www.lapiko.com](http://www.lapiko.com) webgunearen aurkezpena egingo du egun berean.

**ELIKAGAIK SAHARUIENTZAT**

Gorlizko udalak martxan jarri du "Elikatu itxaropen bat" herri sharuiarekiko elkartasun kanpainaren bigarren edizioa eta datorren otsailaren 15era arte atuna, azukrea eta beste elikagaiak bilduko ditu Tindouf-eko errefuxiatuen kanpamenduetara bidaltzeko, Blanca Fernandez Gizarte Ekintzako zinegotziak jakinarazi duenez. Elikagaiak kultur etxeko zein udaletxeko atarietan utzi daitezke

**AGENDA 21 LEMOIZEN**

Lemoizko udalak iragan den urtarilaren 12an onartu zuen 2020ra arte bere garapen jasangarrirako iparorratza izango den Agenda 21 ekimenaren tokiko ekintza plana. Planak 57 ekintza zehatz jasotzen ditu eta horietatik zailena Atalaya plazaren aldaketa izango dela aurreikusten da. Izan ere, bertan egingo diren hirigintza aldaketak egiteko 4 milioi euro baino geiagoko inbertsioa egin behar izango da.

WWW.LAPIKO.COM

**Urdulizko berbakerak sarera egin du salto**

"Guztion etxetiko esaera, kanta, berba-joko, olerki, otoitzen... agertokia da orrialdea", diosku Gilisastik

**Iñaki Gilisastik** Urduliz aldeko Berba lapikokoa liburuari beste aurrerapausu bat eman dio: batutako esaldi bilduma edo lexikoa sarean ipini du kontsultagai eta gainera ekarpenak egiteko aukera ere eskaintzen du. Zuhar informatika lantegiak garatu du internerako aplikazioa eta hori ordaintzeko Uribe Kostako Mankomunitatearen laguntza eduki du Gilisastik. "lapiko.com aspalditik landu dudana asmoa da; ahozkotasuna lantzeko bide berriak eskaintzen zaizkio internauta

euskaldunari; Uribe Kostako jatorrizko euskara web dinamiko batean libre jartzen da, entzungai", azaldu du Gilisastik.

Soinu artxibategia kontsulta daiteke web orrian, eta horrez gain, edonork sartu ahalko ditu antzeko artxiboak hizkera eta etnotestuak (soinuak, testuak, irudiak...) biltzeko asmoz. Gilisastik adierazi duenez, "badu honek guztiak, beraz, eginik dena kontenplazera baino, sorkuntza lan berriak bideatzeko helburua". m

# Otsailak 1 - 19

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37**ERAKUSKETAK****GETXO**

- **Bosteko.** Erromoko erakustaretoa. Otsailak 1-28.
- **Arte Ederretako ikasleen lanak.** Algortako kultur etxea. Otsailaren 4ra arte.
- **Arte Ederretako irakasleen lanak.** Algortako kultur etxea. Otsailak 6-18.
- **Pincel kolektiboaren olioak eta akuarelak.** Algortako kultur etxea. Otsailak 20-martxoak 4.

**LEIOA**

- **Kantauriko koloreak.** Urpeko argazkiak. Kultur Leioa. Otsailaren 19ra arte.

**SOPELANA**

- **Inauteriak 2006, kartelak.** Udaletxeko erakusketa gela. Otsailak 1-13.
- **Kale Dor Kayiko elkartearen artisautza sorkuntzak.** Udaletxeko erakusketa gela. Otsailak 14-17.

**ZINEMA****GETXO**

- **Looking for Fidel.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Otsailak 1, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,80 euro.
- **Buenos dias, noche.** Cinema Paradiso. Azpitiuludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Otsailak 3, barikua. 22:00. Eta aurretik *Eramos pocos...* film laburra. Sarrera: 2,80 euro.
- **Cuatro Hermanos.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Otsailak 8, eguaztena. 19:30.
- **El adversario.** Cinema Paradiso. Azpitiuludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Otsailak 10, barikua.
- **Rolo eta ilar magikoa.** Euskarazko haur zinea. Getxo Antzokian. Otsailak 12, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.



► kantaldia

**Ismael Serrano Kultur Leioan**

90eko hamarkadaren lehenengo urteetan, zuzeneko musika eskaintzen zuten tabernen eta kafetegiaren zirkuitu berria sortu zen Madril. Handik gutxira, egoera politikoaren aurka ahotsa goratu zuten kantautore gazteen talde bat sortu zen, eta hartako seme dugu Ismael Serrano. 1997. urtean Polygram diskoetxeagaz *Atrapados en Azul* bere estreineko diskoa kaleratu zuen. *Papá cuéntame otra vez*, *Vértigo* edota *Amo tanto la vida* lako abestiak gozatzeko aukera edukiko dute otsaileko lehenengo barikuan Leioara hurreratzen direnek. Sarrera: 15 euro.

• Non: Kultur Leioa • Noiz: otsailak 3, barikua • Ordua: 20:30

- **Fragil.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Otsailak 15, eguaztena. 19:30.
- **Carta de una mujer desconocida.** Cinema Paradiso. Azpitiuludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Otsailak 17, barikua. 22:00.
- **Bibi, la pequeña bruja.** Haur zinea. Getxo Antzokian. Otsailak 19, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.

**LEIOA**

- **Plan de vuelo: desaparecida.** Zine komertziala. Kultur Leioa. Otsailak 4,

- 19:00 eta 22:00. Otsailak 5 eta 6, 20:00. Sarrera: 4 euro.
- **Chicken Little.** Haur zinea. Kultur Leioa. Otsailak 5, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.
- **La joven de la perla.** Perseo zineforuma: Europako zine garaikidea zikloaren barruan. Kultur Leioa. Otsailak 7, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.
- **El gran Zambini.** Leioaztartutako bi bilbotarren film laburra. Kultur Leioa. Otsailak 9, eguena. 20:30. Sarrera: gonbidapenagaz.
- **El Niño.** Perseo zineforuma:

Europako zine garaikidea zikloaren barruan. Kultur Leioa. Otsailak 14, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

► **King Kong.** Zine komertziala. Kultur Leioa. Otsailak 18, 19 eta 20. 20:00. Sarrera: 4 euro.

► **Ikasgela Hegalaria.** Haur zinea. Kultur Leioa. Otsailak 19, domeka. 12:00 eta 17:00.

**GORLIZ**

► **Txoritxoak.** Haur zinea. Eloisa Artaza. Otsailak 5, domeka. 17:00.

**ANTZERKIA****GETXO**

- **Maite zaitut.** Pirritx eta Porrotz pailazoak. Getxo Antzokia. Otsailak 3, 18:00. Otsailak 4 eta 5, 12:30 eta 18:00. Sarrera: 3,50 euro.
- **Sobre los prejuicios del tabaco.** Txalo produkzioak, Ramon Barearen bakarriketa. Getxo Antzokia. Otsailak 11, zapatua. 20:00. Sarrera: 7/9 euro.

**LEIOA**

- **Star Trip.** Yllana taldea. Kultur Leioa. Otsailak 10, barikua. 20:30. Sarrera: 12 euro.
- **Eskola Hutsik.** Haur antzerkia. Tentacion Producciones taldea. Kultur Leioa. Otsailak 12, domeka. 12:30. Sarrera: 3 euro.

**BESTEAK****BARRIKA**

► **San Blas eguna.** Meza, trikitilariak, hamaiketako... Barrikako plaza. Otsailak 3, barikua. Goizean zehar.

**HERRI GUZTIETAN**

► **Agate Deuna egunaren bezperako kantuak.** Kantaldiak eta lehiaketak herri guztietan. Otsailak 4, iluntzean.


# aldai

**TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK**

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA



20 ANIVERSARIO  
URTEURREN



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



**ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!**

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



**Galeako** olatuan

Euskal Herriko Surf Federazioak Punta Galean olatu erraldioen txapelketa (Big Challenge) antolatua zeukan urtarrilaren 14rako. Olatuek -metro bi ingurukoak- ez zuten lehiaketa egiteko tamaina nahikorik izan eta, hortaz, norgehiagoka atzeratzea erabaki zen. Hala ere, Galeara bildu ziren ehunka zaleen olatu-gosea asetzeko erakustaldi ederra eskaini zuten lehiaketan parte hartu behar zuten surflariak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



## Astotxoa

Jorje Perez

Iazko udan atera zuen argazki hau  
Jorje Perez diseinugile eta  
argazkilariak. Irudiak Erdi Aroa  
ekarri digu gogora segituan;  
jauntxoak, baserritarrak,  
feudalismoa...



URDULIZ, 2005

[berbetan]

Durangoko Plateruena kafe antzokian egin genuen berbaldia -buruz burukoa, gurago baduzue- Unai Iturriagaz. Leku aproposa inondik ere, eta ez bakarrik 31 urteko durangar honek aretoagaz daukan lotura estuagatik. Izan ere, De la Fuente anaien omenez hartu zuen izena Plateruenak. Zilarra egiten zuten haiek XVIII. mendean, eta zilarra eskuratuko zukeen Unai BECeko finalean, bertsolaritzan domina emateko ohiturarik balego. Zalantzarik ez dago, hori bai, haren bertso kantaldia metal preziatua bezain disdiratsua izan zela. Txapelak, baina, kabia gozoa topatu du nonbait Andoni Egañarenean, eta ez du beste ugazabarik ezagutu XXI. mendea hasiz geroztik. Unai pozik, ez ei zuen txapelik gura. Beraren bertsokerak, kinta bereko beste batzuenak bezala, eztabaidak pizten ditu; gaur egun bertsolaritzaren izakeraren gainean dagoen eztabaida bera, azken batean. Eta Unai, txapeldun izatekotan, bertsotzale guztien txapelduna izan gura luke, ez batzuenak bakarrik.

# Unai Iturriaga

## Txapela kentzeko modukoa

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Bertsolari txapelketa nagusiko finala Bizkaian lehenengo biderrez, eta bizkaitar bertsolari bat buruz burukoan aspaldiko partez... Probintziazalekeria dago bertsolaritzan?

—Bertsolari artean ez. Garai batzuetan egon zan, ez dakit zenbateraino probintziazalekeria egoalako, edo probintzia konkretu batzuetako bertsolari konkretu batzuk aurrez aurre egon ziralako. Garai tentsoak egon dira horretan, baina orain gure artean ez, adar jote batzuk egon leitez baina... Nik, behintzat “durangarra naz” edo “euskalduna naz” esango dot, ez dot esaten “bizkaitarra naz”, ez deust niri informazino berezirik emoten horrek. Eta nik ez dot ukatuten bizkaitarra naze-nik, eta bizkaiera bere hor deko gu diferentzia moduan, baina ez dot sentidu hori bertsoan, uste dot difuminaten doan gauza dala, jende gehiago mugiduten dalako beharbada, ez dakit. Duda barik BECen, seguru asko, bizkaitar gehienak nire alde egongo ziran, eta gipuz-

koar gehienak Andoniren alde, baina hori ez da ika-mika iturria gaur egun.

—Espero zenuen buruz burukoan ego-tea?

—Ez.

—Baina itxaropenagaz joango zinen finalera...

—Beno, finalera heltzea zen gehienon

### “Ez neban txapela irabazi gura, ez nintzan guztien txapelduna izango”

helburua, eta behin hara helduz gero ahalik eta ondoen kantatea, noski. Nire buruan ez egoan besterik, pentsaten neban beste batzuk hobeto ibiliko ziralako. Egia esanda ez neban espero, gero arratsaldean danak hasi ziranean esaten, bildurtuten hasi nintzan...

—Zer esaten zizuten, aukera handiak edukiko zenituela buruz burukoan egoteko?

—Bai. Goizeko saioa egin eta gero, Igorrek [Elortzak] behin eta barriro esa-

ten eustan, “hor egongo zara, edo egoteko modua dekozu”, baina ez zan nire helburu bat. Andoni [Egaña] eta Maialen [Lujanbio] izan ezik, uste dot beste dannon helburua finalera heltzea zala.

—Nik teoria bat daukat: aulkiagatik irabazi zizula finala Egañak...

—Nik uste dot irabazi daualako irabazi

dauala, ni baino bertsolari hobea dalako. Aparte, egia da, eta berak bere esan eustan: “Zu bildurtu egin zara buruz burukora pasa zarenean”. Nik ez neban txapela irabazi gura; ez dakit gura izan baneban irabaziko neban, baina ez neban gura.

—Zer, ba?

—Txapelduna izatea erresponsabilidade handia dalako. Gehiago, gainera, Andoniren ostetik txapelduna izatea, berak langa ipini duen lekuan ipinita, eta ez bakarrik bertso mailan. Batez bere onarpen





mailan, Andonik lortu egin dau guztion txapelduna izatea. Eta uste dot bertsoz eta jokabidez lortu dauala. Nik irabazi baneu, beharbada, ez nintzake guztien txapelduna izango, eta ez da bildurra. Ez da nire ametsa txapeldun izatea, eta Amurizaren *Enaz banaz* irakurrita, zenbat urte, zenbat sufrimendu pasa behar izan dituan jendeari erakusten bera bertsolaria zala, txapelduna izanda bere... Nik ez daukat inongo gogorik holan ibilteko. Horregaz ez dot esan gura ez nebalako gura, seguruenik gura izan baneban bere Andonik beti egingo eban buelta erdi gehiago.

—“Egañak txapela galduko ete du aurtent?”, hori zen finalaren atariko galdera. Benetan sinesten zuenik bazegoen?

—Bai, eta nik aurretik esan neban: jendeak arinegi kendu deutso txapela burutik Egañari. Berak bere monta dau estrategia komunikatibo bat, kabroi halakoak. Alde batetik zintzoa da, esaten dauanean poz-tuko litzakeela beraren gainetik baten bat pasako balitz. “Bide batez, hurrengo txapelketan ez dekot zertan joan derrigorrez, presio hori kentzen dot, hiru txapel badekodaz...”. Baina nik baneukan susmoa hori guztiz egia ete zan, eta gero aurreko txapelketan Maialen zelan oso hurbil ibili jakon, batez bere buruz burukoan, uste dot danok geneukala buruan Maialen behintzat hor egon ahal zala. Baina ni ez nintzen fidetan Andonigaz. Beharbada lasaitxuago ibili da azken aldian, baina zeozerreri ekiten deutesonean “munstro” bat da.

—Egañak berak esan zion UKri bera osteko txapelduna nor izango den ez dagoela hain argi, berdintasun handia dagoela ondorengo belaunaldian. Ia seguru izango da beragaz azken finalean egon zarenotako bat, baina nor?

—Neuk bere ez dot ikusten izen bat argi eta garbi. Finalean Andoni izan zen txapeldun, baina bigarrena hiru edo lau izan ahal ginen. Gure artean ez dago Egañak markatzen dauzen moduan diferentziak

markatzen dauzenik. Egia da plazan, azkeneko urteetan -nik holan sentidu dot-, Maialen danon gainetik ibili dala. Pena izan zan Maialenek ez ebala egun ona euki BECen, uste dut pisu larregia eukala finalean egoteagatik, edo ez dakit zergatik.

—Lau urterik behin da txapelketa. Asko da, gitxi...?

—Ondo dagoala uste dot. Holan bakarrik da posible bihurtzen dan fenomeno hori bihurtzea. Sarriago izanez gero hori

dala hori nitaz, zera adieraziz moduan: “Honek bai, lantzean bai ideia batzuk botaten dauz, baina bertsoan-bertsoan...”. Eta hori, nire ustez, bertsoaren kontzeptu mugatu baten ondorioa da. Duda barik -eta nire ustez zorionez- Igor [Elortza] eta ni, eta Bizkaiko jende asko, ez gara bertsoara heldu tradizionotik, ez dogu euki tradizioaren pisu hori, eta horregatik egiten doguz beharbada beste batzuek egiten ez dabezan gauzak. Ni ez naz harrotzen tradizioa asko ez ezagu-

## “Jendeak arinegi kendu eutsan txapela burutik Andoniri”

galduko leuke, eta lau urtetik gora asko da. Ondo dago, denbora emoten daualako belaunaldi berriak agertuteko.

—Beharbada beste batzuek zuk baino bertsoakera hobea edukita ere, mikrofono aurrean paratzen zarenean denak dagoz zerbait desberdin entzuteko zain. Oso ideia berezia espero da beti zugandik...

—Estereotipazioa da hori, ezta? Bai, batzuetan sentidu egiten dot pisu baten moduan, baina ez beti. Gero, kurioa da jende batentzat -ezagutzen nabenek igual, edo bertsoa beste garai batean eta beste bide batetik heldu diranak- normalagoa dala nirea. Mundu klasikotik datorren jendeak pentsaten dau ahalegin berezia egiten dodala horretarako, eta ez da ho-

tzeagatik, baina igual ez dogu euki katea hori, eta igual esan leike, gure kasuan, gure bertso-moldea eta gure izakera gertuago dagozala beste kasu batzutan baino.

—Oraintxe pil-pilean dago eztabaida hori bertsoaritzan, ezta? Klasikoa alde batetik, berritzailea bestetik... Betiko eztabaida, bestalde. Zaharrentzat, beti lehengoa hobe.

—Bai, hori batetik. Eta bestetik, ni horrek ez nau arduratzen zaharregian, gazteengan baino. Niri ez jat inoz esaterik bururatu nirea ez dan molde batetaz: “Hau ez da bertsoaritzan”. Zer da bertsoaritzan, ba? Bertsoaren deskripzioa doinu, neurri eta errima batu behar dirala

## “Batzuri ez jake gustaten bertsoaritzan hartzen dabilen bidea”

lan. Ni halakoa naz, eta ez dot holan kantatzen ez dakit zer izaten ahaleginduten nazalako. Holakoa naz, eta nire estilo edo moldean bertso txarrak eta onak botaten dodaz, edozeinen moduan. Gero ahalegindu naz -badira urte batzuk bertsoan-beste molde batzuetan bere egiten, plaza mota asko tokaten da-eta. Uste dot, gainera, modu despektibo samarrean esaten

da, eta horren barruan nik ulertzen dot jende bateri nire moldea ez gustatea, baina ez dot ulertzen egia absolutuaren jabe sentitzea inor. “Hau bada, eta bestea ez da”. Baina nik neurtu egin dot, errima egin dot eta kanta egin dot; hori bertsoa da.

—Bat-batekotasun apur bat galdu dela ere esaten da...

—Guzurra. Esango neuke, gainera inoiz

baino bat-batekoagoa dala, eta ez lehen ez zalako, baina gaur derrigortuta gagoz bat-batekoagoak izatera, komunikabideak dirala eta ez dirala ezin dogulako bertso-rik errepikatu. Komunikabideak zein jendearen mobilitadea. Lehengoan, Oiarzungo saio batean, Mallabiko jendea egoan, Bilbokoa... Beraz, hori ez da egia, planteatu gura daben dikotomia hori, teknifikazioa eta... zelan da? Guzurra da. Bertsoaritzaren teknika oso erreza da, eta lehengoek be baeukezan euren triki-mailuak. Ez dinot hau nuere burua defenditzeagatik, lehengoan inteligentzia onartzeagatik baino. Ze hemen jendea inozo samarra da, pentsaten dauanean lehengoak, lehengoak ziralako, hasi eta bota egiten ebela bertsoa. Ostia, Uzta-pidek-eta saio asko egiten eben urtean, eta pentsatu egiten eben euren ofizioaz.

Orain bardin-bardin da. Eta bat-batekoagoa, lehen esan dodanagatik.

—*Xalbadorren heriotzean* ei da euskal kanturik onena, Zer gustatuko litzazuke esatea *Iturriagaren heriotzean kantua*?

—Ez dakit, ez dot pentsa kanta bat egingo deustunik bere. Dana dala, gure garaian, zorionez edo zoritxarrez, oso dokumentata geratuko gara, memoriak beste modu batean funtzionatuko dau. Nik ez dakit zer esango daben nitaz, baina behintzat ez daiezan esan bat-batekotasun gitxi eta holakorik, edo batzuek esan dabena, faltsua nintzala. Hori ez daiezala esan, ez nire bertsokeraz ez izake-raz.

—Min emoten dizute kritikek?

—Bueno, ez dot hainbeste jaso, baina lantzean behin bai. Min emoten dau,

batez bere, ez zer esaten dan, nor esaten dauan baizik.

—Ezjakintasunetik datozen kritrikak, alegia?

—Ez, ez da hori. Badago jende bat zertzegatik ez jakona gustaten bertsoaritzan hartzen dabilen bide konkretu bat. “Hau ez da bertsoaritzan” hori jende moderno askoren barruan dago, ez dabe gustoko bertsoariak okupaten daben espazio barri hau. Bertsoariak, lehen, figura interesanteak ziran literarioki-eta, irudi mitikoa eukien, txapela sagardotegietan eta abar. Jakina, jende arrunta garanean, emoten dau jendeari ez jakola gustaten. Bertsolari ez-jakina ondo dago, baina bertsolaria eta gainera ondo idatzi bere bai, eta zera bere bai... “Ea lekua kendu behar deuskuen...”. Uste dot hori bere badagoala. m

aldizkaria **etxean**  
jaso nahi baduzu

**HARPIDETZA** > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....  
Kalea & zenb.....Herria.....  
e-mail.....Telefonia.....

**Urtero**  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**  
171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz  
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



URTARRILA. Eduardo de Aurrekoetxea jauna Bilbora dator publicitate enpresa bat zabalteko asmoz. Bilbon artean ez dago halakorik (1906ko martxoan).



OTSAILA. Enpresa berriaren egoitza kokatzeko, Aurrekoetxea jaunak Oñatiko baroiaren lantegia erosten du (1906ko apirila). Argazkiaren atzealdean, Aurrekoetxea jaunaren lantaldea.

## Laluca&Cía.

Marketina, publicitatea... oro har komunikazioaz arduratzen da Algortako Laluca & Cía enpresa gaztea. 2003an hasi ziren, eta laster bezeroak jende berriaz fidatzen ez direla konturatu ziren. Jendeak orain dela urte asko hasi zirela pentsa zezan zeozer egin behar zuten eta enpresaren ehungarren urteurrena ospatzea otu zitzairen. Lalucaren balizko sortze prozesua erakusten duen argazki sorta egin zuten eta irudi horiekin 2006rako egutegi ederra atondu dute. Egutegiak berak adierazten du zer egiteko gai diren.

Argazkiak: **Carlos Terreros**

[www.laluca.com](http://www.laluca.com)





MARTXOA. Eduardo Aurrekoetxea jaunak eta Jose Joaquin Garcia y Pedrejon ilustratzaileak agiriak sinatu eta Bizkaiko lehenengo publizitate agentzia sortzen dute: Laluca & Cia. (1906ko apirilaren10a)



MAIATZA. Sasoi hartan atzeritik ekarritako puntako teknologia erabiliz produkzio handia eta azkarra eskaintzen du Lalucak.



APIRILA. Javier Morok, Igor Garcia, Jose Joaquin Garcia y Pedrejonek eta Arkaitz Bustamantek osatzen dute lantaldea. Ilustrazioa eta publizitate zerbitzuak eskaintzen ditu Lalucak hastapenetan.



EKAINA. Carlos Terreros argazkilarik gazteak bere teknika berritzaileekin bezeroen eskaerak ondo baino hobeto asetzen ditu.



UZTAILA. Publizitatearen indarra gero eta gehiago estimatzen dute bezeroek. Komunikabide berriek sortzen dira. Tucker Davila eta Alvaro Gonzalez de Carrancojak zinemagintza sail berriaz arduratzen hasten dira Lalucan.



IRAILA. Enpresa hazten doa eta alboko eraikina erosten dute. Diego Rodriguez-Escudero arkitektoak hartu zituen egokitze lanen ardura.




ABUZTUA. Eskaerei hobeto erantzuteko, produkzio koordinatzaile lanetan hasten da Adela Ucar Innerarity.



URRIA. Eraikin berriaren zaharbertze lanen arrakastak bultzatuta, arkitektura saila sortzen dute Lalucan. Diego Soroa izendatzen dute sail berriaren buru.



AZAROA. Enpresaren ezusteko hazkunde ikaragarria zaintzeko Begoña Lopez de Larrnaga abokatua bilzen da lantaldera.



ABENDUA. 1906ko urriaren 8an finkatzen da lantaldea. Eurek eman zioten Lalucari gaur egun enpresak daukan sona eta prestigioa.

**Edorta Aurrekoetxea eta Jokin Garcia** > Laluca-ko arduradunak

“Gaur egun, bere burua gehien iragartzen duenak saltzen du gehien”



Jokin Garcia eta Edorta Aurrekoetxea

**UK honen *Fotografia* atalean Algortako Laluca komunikazio eta diseinu enpresak egindako irudiak dituzue. Edorta Aurrekoetxea (Algorta) eta Jokin Garcia (Plentzia) dira horko buru, eta elkarrizketatxo hau egin dugu eurekaz, marketinaren eta publizitatearen garrantziaz. Diotenez, Jokinen txakurraren izenetik (Luca) hartu zuten enpresarako izena, “izan ere, `c` eta `a` dauzkaten izenak errazago gogoratzen dira”.**

—Komunikazio gizaratean bizi ei gara. Eta antza, denak dauka garrantzia, berben fonetikak ere bai...

—Hala da. Jendea konturatzen dabil komunikazioa benetan eraginkorra dela enpresa batean emaitzak lortzeko epe laburrean. Lehen ez ziren hainbeste ausartzen halako gastua egitera. “Orain arte iraua badut, zertarako gastatu publizitatean?”. Gaur egun, pentsatzen da plazara irten behar dela, ezagutu zaitzaten. Enpresetan jende gaztea sartzen dabil, eta horiek badakite zein garran-

tzitsua den marketina, irudi bat ematea.

—Eta irudi hori barik, ez zara inor?

—Norbaitek zioenez, izatea ezagun izatea da. Enpresa bat, denda bat... zenbat eta jende gehiagok ezagutu orduan eta jende gehiagok erosiko du hark saltzeko daukana.

—UK honetan zuek egindako egutegi baten irudiak ageri dira. Zeuen izena zabalatzeko egin ei duzue, hain zuzen.

—Bai. Gu hainbat lekutan ibili gara diseinu ikasten. Madrilen ezagutu genuen elkar, eta han agentzia bat ipini genuen, jende gehia-

gorekin, baina azkenean hona etorri ginen, berriro ere hutsetik abiatzeko asmoz. 2003an hasi ginen, eta konturatu egin ginen bezeroak ez direla jende berriaz fidatzen. Orduan, bururatu egin zitzaigun zeozer egin behar genuela jendeak orain dela asko hasi ginela pentsa zezan. Eta geure ehungarren urteurrena ospatzea erabaki genuen, enpresa 1906an sortu izan balitz bezala. Jendeari gustatu egin zaio, barregarria ere badelako. Gainera, egutegiak berak adierazten du zer egiteko gai garen.

**«Gaur egun, gurea bezalako 180 enpresa dago Euskadin, eta guztientzako lana dago»**

—Zuen lana zertan den erraz esplikatu daitezke?

—Bezeroak gehiago saltzea, horixe da helburua azken batean. Gaur egun dagoen lehia kontuan hartuta... Lehen, iragarri gabe ere sal zitezkeen, baina orain bere burua gehien iragartzen duenak saltzen du gehien.

—Hainbesteko eragina dauka publizitateak gudan?

—Bai. Begira hainbeste marketin duten pelikula estatubatuarrei. Orain behin eta berriro entzungo duzu King Kong datorrela, King Kong gora eta behera. Gero, ez zaizu pelikula gustatuko eta lagun bati esango diozu, baina hala ere, bera joan egingo da ikustera. Marketinik gabe, ez litzateke joango. Garrantitsuena zera da: zuk King Kong izena entzun duzula. Eta bestea, existitzen denik ere ez dakizu.

—Zuena bezalako agentzia asko dago?

—Bai. 180 inguru Euskadin, eta guztientzako lana dago gainera. Hainbeste enpresa dago, sustatu beharreko hainbeste produktutu... Eta bezeroak konturatu egiten dira emaitza berehalakoa dela. m

## zineeskola

Oskar Fernandez

### Planoen ezaugarriak (I)

Film bat egiteko planoak ezinbestekoak dira. Pelikula baten aurrean gure begien aurrean etengabeko irudiak dantzan dabilta, baina konturatu ala ez hauek plano desberdinetan sartuta daude. Zinemagintzan batez ere bi plano mota desberdin daude: “plano de rodaje” direlakoak eta enkoadraketa desberdinek sortutakoak. Has gaitezen lehenengoarekin. Kamera grabatzen hasten denean eta gelditu arte sortutako inprimatutako film zati horiei errodaje plano edo deitzen zaie. Bigarrenak guri gehien interesatzen zaizkigunak dira haien bidez filmaren diskurtsioa artikulatzen da-eta. Plano hauek izendatzeko gizakiaren irudia zutik dagoenean kontuan hartu zen. Orokorrean sei plano zeharo desberdin erabiltzen dira. Plano Orokorra: Naturaren edo hiriko ikuspegi irudi zabal eta handia erakusten du eta honen bidez ekintzak non gertatuko diren adierazten da. Plano honetan pertsonaiak agertzen baldin badira haien irudiak hain txikiak izango dira, plano barruan, ezinezkoa egingo zaigula jakitea nortzuk diren. Plano Osoa: pertsonaiak zutik enkoadraketaren goiko eta beheko mugetan sarturik daude. Era honetan ikusleak nahiko hurbil daude pertsonaiengandik eta beste aldetik haien inguruan dagoena nahiko ondo ikusten da. Hiru Laurdeneko Planoa: Pertsonaiak gerritik bururaino harturik daude. Beraz pertsonaiengandik hurbilketa gehiago lortzen da plano honen bidez eta psikologikoki haiekin lotura estuagoa lortzen da. Hurrengo alean jarraituko dugu. 4

## Barton Films zine banatzailea

Euskarazko *Aupa, Etxebeste!, Olentzero eta subil magikoa* edota *Oliver Twist* banatu ditu

**Hamalau urte** daroaz Barton Films banatzaileak zinearen unibertsoan. Filmak banatzeaz gainera, 62 pantailatan esku-hartzea dauka. Bilbon egoitza daukan enpresako kide Maria Jesus Diazek goraiatu duenez, “euskarazko filmen lehenengo banatzailea da”. Euskaraz, animazio alorrean ipini dute Bartonekoek arreta berezia, “ikusleei dagokien ez euskarazko animaziozko filmek oso ondo funtzionatzen dute; gainontzeak, *Aupa, Etxebeste!* eta *Obaba salbu, nahiko erantzun eskasa izaten dute*”, diosku Diazek. Pasa den urte emaitza nahiko kaskarrak agurtu ei dute Bartonekoek: “*Barton Films bezala 5 film banatu ditugu eta ordezkartza dugun lekuetan beste 70; euskarara bikoiztutakoak 7 izan dira*”. Hala ere, aipatzekoa da *Aupa, Etxebeste!* eta *Olentzero eta subilaren lapurreta* (animaziozko zinea) arrakastaz banatu dituztela: 13na kopia egin dira.

### «Aurten, barbarako, Errepidean filma banatuko du Barton Filmsek»

Aipatutako bi izenburuez gain, Barton Filmsek banatu dituen ekizpeneen artean hurrengo animaziozko eta fikziozko filmak daude: *Kiriku eta basapiztiak*, *Oliver Twist*, *Daltondarrak*, *George eta Herensugea*, *Super-*



www.bartonfilms.com

*trumps, Pinotxo 3000, Blueberry, Unibertso-lariak, Glup, Betizu izar artean, Mothman azken profesia,* edo *Karramarro ubartea...* Bestalde, aurten banatuko dituzten lanen artean *Errepidean* filma aipatu du, besteak beste, Diazek.

Barton Filmsek euskarazko zinea (animazioa, fikzioa, bikoiztutakoa...) banatzearen alde egiten duen lanean ipini dugu arreta oraingoan, oster, esan barik doa gaztelarazko filmak ere banatzen dituela. m

## Ez galdu > Looking for Fidel

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: otsailak 1, barikua • Ordua: 19:30 • Zineklub



Oliver Stone Ameriketako Estatu Batuetako zuzendari ezagunak, han eta hemen, ordu luzeak igaro zituen Kubako uhartean Fidel Komandanteari elkarriketa sakona eta interesgarria grabatu ahal izateko. *Platoon* filma zuzendutako egileak dokumental bikaina egin du. Ikusleek hainbat gai interesgarri eta desberdinei buruzko informazioa alde desberdinetatik jasotzen dute: Kubatik alde egin duten pertsonen ahotsa plazaratzen da, Kubako gobernuak aurrera eramaten duen politikaren aurka dagoen jendearen iritzia islatzen da, izan ere, Stonek aukera ematen die pertsona desberdinei haien ikuspuntuak azaltzeko eta defenditzeko. Baina Komandanteak ziurtasun handiz eta oinarritzko argudioen bidez kritika guztiei inteligentzia jantzita aurre egiten die. Fidel Castro Komandante handiak ez dio inolako galderi uko egiten eta irribarez, umoretsu edo batzuetan haserreturik bere sakoneko argudioen bidez aurrera egiten du.

## Musika liburuak euskaraz

Itoiz, The Clash, Ramones eta Public Enemy-ren gaineko liburuak **Hotsak** diskoetxearen eskutik



10-12 euro bitarteko prezioa daukate liburuok. Informazio gehiago: www.hotsak.com

**Musika** edo musika taldeen gaineko erderazko liburu baten argitalpena bera ez da albistegi dagoeneko, oster, orain arte euskaraz ez zegoen horrelako aukerarik. Hutsune hori betetzeko asmoagaz aurkeztu zuen Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak Durangoko azokan *Bosgarren harria* liburu bilduma. Lau dira daborduko sorta osatzen duten aleak: *Itoiz, hari xingle bat* (Jon Eskisabel), *Ramones, familia maitagarria* (Gotzon Herrosilla), *The Clash, punk rock'n'roll & reggae matxinada* (Paddy Rekalde), eta *Public Enemy, beltzezi, indartsuegi* (Asier Leoz). Hotsak-eko arduradun Joxe Felix

Azkaratek azaldu duen legez, “*sakelako liburuak dira, irakurterrazak; dibulgatiboak, ez dira didaktikoak; datu objektiboak eskaintzen dituzte baina ikuspuntu subjektibo batetik...*” Hau da, musikazale baten ikuspuntuak gidatuta bibliografia, itzulitako abesti zein argazkiak osatzen dira liburuok. Orain arteko salmenta kopurua txukuna izan dela azaldu du Azkaratek eta aurten beste bospasei kaleratuko dituztela aurreratu du. Aurtengoek gehienbat kantariez eta Euskal Herriko taldeez jardungo dutela gaineratu du eta prestatzen dabilzanen artean Niko Etxart, BAP! edota Tom Waits aipatu ditu. m

## Aldizkaria > Entzun!-ek 10 urte



Abendua-Urtarileko zenbakian gogoratu zuten Entzun!-ekoek dagoeneko hamar direla musikaren geruzetan murgilduta joandako urteak.

1996ko ekainean jaio zen euskarazko lehenengo musika aldizkaria, eta gaur ere euskarazko musika aldizkari bakarra izaten jarraitzen du Entzun!-ek. “*Bakarra eta geldiezina... oztopoz josiriko ibilbidea izan da, gaur egun, oster, immotasuna eta kalitatea lirareke aldizkariaren ezaugarri azpimarragarrienak*”, adierazi dute urteurrenean Entzun!-eko arduradunak. 46 dira 10 urteko ibilbidean kaleratutako zenbakiak, zenbakitza bere orrialdeetan agertutako abeslariak, musikariak, taldeak, jaialdiak, kritikak... 3 eurotan salgai dago kioskoetan, edota harpidetza eginez gero 15 eurogatik urtean 6 zenbaki jasoko dituzute etxean.

Informazio gehiago: www.entzun.com

## Bakarlaria > EtxEren lehenengoa

Berrizko bakarlariak lehendabiziko diskoa plazaratu du: *Zatoz nirekin*. Berak ekoiztutako estreineko lana 5 kantu melodikoki osatutako dute: Belfasteko ilargia, Herri bat joan etorri, Hor zaude, Hori da dena eta Zatoz nirekin. Hala ere, zuzeneko emanaldietan kanta zaharrak ere abesten ditu, denetara 13 bat abestiz osatutako jarduna eskaintzen du EtxEk. Diskoa ostazeko Eñaut (Ken 7), Lander eta Ramiro (Lor), Itsaso (Ika) eta lokinen (Sei urte) laguntza eduki du.

Harremanak: etxemusika@hotmail.com

## diskoak

**Live Kafe Antzokia**  
J. Anitua & A. Rhumba  
Noizpop



Cancer Moon taldeak orain dela hamar urte etenaldi bat egiteko erabakia hartu zuenetik, Josetxo Anitua artista eta konposatzaile ezberdinekin aritu da elkarlanean. Atom Rhumba taldearekin betidanik mantendu izan duen adiskidetasunak eta Ruta 66 aldizkari kolaboratzaile aintzindaria eta lagun den Fernando Gegundezek bultzatuta, kontzertu bat burutzeko aukera azaldu zen. Kontzertu hura jasotzen du disko honek.

**Euriaren zain**  
Piztiak  
Gaztelupeko Hotsak



Ondarroako rock talde hau orain arte hiru disko zituen argitaratuta: *Hasi ordutako* izenekoaren (1992); sei urteren buruan, *Argia eta Itzala* iritsi zen, 1998ean. Urtebete geroago, 1999an, *Piztiak*-ekoek Zero izenez bataiatu zutena iritsi zen eta iaz, azkenik, *Euriaren zain*. Lan honi nostalgia kutsua nabari zaio. 80ko hamarkadako azken urteetan hasi zen taldea sortzeko proiektua. Orduko Bilboko kaleetako bizitza igertzen da abestietako letratan.

**Playing the Angel**  
Depeche Mode  
Sire Records



Talde britaniar honen hamaikagaren lana dugu honakoa, beren 25. urteurrena ospatzeko ekoiztua. 2001. urtean *Exiter* izeneko lanarekin sekulako arrakasta lortu zuten, bi milioi ale saltzera iritsiz. Lan berri honetan hamabi abesti aurkikatu dituzte. Bertain, Depeche Modek gizakiaren alderik ilunena ikutzen du berri ere, baina oraingoan, bestetan baina modu baikorago batean. *Playing the Angel* diskoan aurrekoetan baino ermitto azkarragoa antzematen da.

etorri  
eta  
ikusii!!

**LORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algortia

Getxoko Andra Mari  
Zerbitzu Estazioa

etxera  
eroaten dizugu  
gasoleoa

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km  
Getxo / Tel: 94 430 15 00



94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

[liburuak]

## Gaztetxeko lorak

Santutxuko Gazte Asanbladak ureztatutako ortuan esnatu da **Ametsen Baratza**

**Sorgintxulo Gaztetxetik** (Santutxu, Bilbo) joanarazi zituztenetik ia urtea pasatakoan, *Ametsen Baratza* liburua besapean datozkigu Santutxuko Gazte Asanbladakoak.

Abendu aldera aurkeztu zuten 41 euskal idazle eta beste horrenbeste artista grafikoren marrazki, argazki, poema, ipuin, artikulua eta abarregaz ondutako lana. Idazletako batzuk aipatzearen: Harkaitz Cano, Felipe Juaristi, Arantxa Iturbe, Kirmen Uribe, Asel Luzarraga, Maddalen Lujanbio, Julen Gabiria,

**“41 euskal idazlek eta beste horrenbeste marrazkigilek osatu dute liburua”**

Unai Elorriaga, Paddy Rekalde, Tere Irastortza, Bertol Arrieta, Itxaro Borda, Castillo Suarez, Pako Aristi, Gotzon Barandiaran, Juan Mari Irigoyen, Xabier Mendiguren Elizegi, Patxi Zubizarreta, Amets Arzallus, Iban Zaldua, Lutxo Egia, Gerardo Markuleta, Ixiar Rozas, Fernando Morillo, Miren Agur Meabe, Eider Rodriguez... Eta irudigileen artean, liburuaren azala sortu duen Jose Luis Zumeta margolariaz gain, Asisko Urmeneta, Erramun Landa, Patxi Gallego



Kirmen Uribe ere parte hartu du liburuan.  
[www.eleaeeditorial.com](http://www.eleaeeditorial.com)-en eros daiteke liburua

edota Mattinek parte hartu dute.

Gazte Asanbladakoek azaldu duten legez, *“Gazteteen aldeko, eta mehatxu, leku huste, atenerazte, epaiketei... aurre egiteko”* erabiliko dituzten egitasmo eta bideetako bat da *Ametsen Baratza*. 15 eurotan plazaratu du Elea argitaletxeak liburua eta Sorgintxulokoek adierazi dutenez, *“epaiketei eta isunei aurre egiteko”* dirua batu gura dute ekimen honen bitartez.

Sasi guztien gainetik hegaz segitzen dute “sorginek”, hegaldietan ametsen haziak botaz, gaztetxeko baratzean lora berrien uztak bihar ere jasotzen jarraitzeko. m

liburuak



**Txakur arrantzale...**  
K. Uribe & A. Olariaga  
Elkar

Izenburuak dioten bezala, txakur arrantzale baten istorioa kontatzen zaigu Kirmen Uriberen azken liburuan. Gutxi, arrantzale andaluziar baten txakur txikia, humezurtz geratzen da bere jabeak ospa egitea erabakitzen duenean. Milaka istorio gertatuko zaizkio aurrerantzean Gutiri, bihotza gazte duen irakurle orori zuzendutako kontakizun honetan.



**Riomundo**  
Jon Maia  
Txalaparta

*“Gogoaren kontra, egoerak behartuta, herria, sendia, etxea utzi behar duena ez da immigrantea, erbestera-tua baizik”* Bertolt Brecht-en aipuarekin hasten du Maiak lan berria. Bizitzaren emariak, maletaz eta istorioz kargaturiko jende andana eramaten du lurralde ezezagunetara. Euskal Herria ere iritsi ziren milaka desterraturik beteriko trenak. Hari horri tiraka eraiki du Maiak eleberria.

[kirola]

## Itxas-Argia mendi taldea

Gitxienez **hilean behin** mendi irteera edota **zeharkaldi bat** prestatzen dute; botak prest?



Itxas-Argiako mendizaleak Baigorriko Adartza mendiaren tontorrean

**Urrun** lotu dira, 1958 amaiera hartan, Getxoko Itxas Argia elkarte sortzeko eragozpenak: elkarte sortzeko erregistroan “faro” edo “luz de mar” izena jartzera derrigortu zituztenekoak, Gorbeiera joateko goizeko 5etan esnatu beharrak... Baina orduko ilusioak eta gogoak, batzuetan sasoi suago besteetan makalago, baina gaur arte diraute. Itxas Argia elkarteak hainbat alorretan dihardu: dantza, kultura, antzerkia, Paella Eguna prestatu... oraingotan mendi taldean ipini dugu arreta.

Lañomendi (Loiu) izan zen “itxasekoek” igotako lehenengo gaina 1959an, orain hilean behin behintzat irteera bat egiten dute. 200 bazkide inguru izango ditu taldeak (12 euro urtean) eta eguneko irteera guztiak 12 euro balio dute, mendia urrutu zein hurbil egon. Baina bazkide ez direnek ere itxasekoen mendizaleatasunagaz bat egin dezakete eta zeharkaldietan parte hartu (14 euro).

Orain dela 5 urte, egitasmo polita ipini zuen martxan taldeak: Euskal Herriko lurralde bakoitzeko tontorretan (buzoi bakoetan) postontzi bana paratzea. Urtez urte ekimena betetzen doa: Ezkaurre (Nafarroa, 2001),

Aluitz (Bizkaia, 2002), Aztio (Gipuzkoa, 2003), Baigura (Lapurdi, 2004), Adartza (Behere Nafarroa, 2005), Binbaleta (Zuberoa, aurtengo egitekoa), eta Arabakoa litzateke gero-koa. *“Postontzien bitartez mendi talde edo mendizaleak harremanetan jartzen gara; lehen galduz gero non zauden jakiteko enabiltzen ziren, oin gutxiago GPSak eta daudelako”*, diosku Itxas Argiako kide Joseba Gorostolak. Gailurrak “gaztaminez” daudela ere azaldu du, gazte gutxi eta gutxitan doazela mendira, eta horregaz batera *“taldean ere gazteen lan egiteko gogoen premian gaude, ia guzuen hurbiltzen animatzen diren”*. m

## Irteerak

- **Otsailak 12:** Alba-Argibel (Elizondo, Nafarroa)
- **Martxoak 12:** Iyrbain-Berriain-Leziza (Unan-Uharte Arakil, Nafarroa)
- **Apirilak 1-2:** Binbaleta-Kartzela-Auñamendi (Isaba, Nafarroa)
- **Maiatzak 7:** Kapildui-San Justi-San Cristobal (Okina Apellaniz, Araba)
- **Ekainak 4:** Comon-Hijan-Cordel (Bañavieja-Abiada, Kantabria)

Informazio gehiago: [www.eligeaventura.com/itxasargia](http://www.eligeaventura.com/itxasargia) / 656 309 793

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa  
Kirol moda



**350** m<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN  
**Lacofris**.s.l. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNENA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA

& 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

**HIRURAK** T: 430 53

Sarrikobaso 15



ANTOLAKETA ETA ZERBITZUAK S.L.

**15** urte zuekin

*Zorionak eta urte berri on bezero eta lagun guztiei!*

Errotatxu poligonoa, B blokea, nabe 11 - 48993 GETXO  
Tel.: 94 491 17 44 - Faxes: 94 491 0851  
E-mail: az@antolaketa.com - www.antolaketa.com



SERVICIO POSTAL VASCO / EUSKAL POSTA ZERBITZUA

Zuen esku jartzen dugu:

HIRI BARRUKO KORRESPONDENTZIA BANAKETA  
PROPAGANDA BANAKETA

HIRI BARRUKO ETA KANPOKO INPRIMAKI, MAILING, PUBLIZITATE ZUZENA  
ETAB.EN BANAKETA

Paketeria, Garraio lokala, nazionala eta nazioartekoa  
Sobreratzeak, Manipulatuak...  
Inprenta eta Arte Grafikoak  
Agiri eta gutunazalan personalizatzea

**Konpetentziarik gabeko prezio-kalitate erlazioa. Informazio gehiago behar izanez gero, ez zalantzarik izan. Deitu!**

GETXO • LEIOA • BERANGO • ERANDIO • BASAURI

Tel. / Fax: 94 480 31 12  
www.euskorreo.com email: manusola@euskorreo.com

**Esakere** > "Angeruk bere eztauz gu baño hobeto zerun"



Irudia: Gorka Vazquez

Askotan entzuten dogu hau Costa Rica dala, hemen baño hobeto ez dala jente iñon bizi. Asti eta osasune auki ezkeron klaru dau badaule hemen zelan denpore emon bapere abrosidu barik... Baina badakigu, beste alde batetik, hemen dana ezjala yaie eta zoriona: askontzako bizimodu ezta erraza, ez hemen, ez Larrondon, ez iñon. Jakintsu batek behin pregunta egin ei euen: *Mundu hau ez ete da beste mundu baten infernu...*

Esakeratxu hau I. Gilisastin "Berba lapikokoa" liburu ederratik atara dogu.

**Gure berbakere 70**

**BERBA JATOR BATZUK (XVII)**

Berbakere 66n maillegu zahar batzuk, hau da, erderatik harturiko berba batzuk, ikusi genduzen, gure euskeran aspalditik eta modu jatorran erabilten direzenak. Berbakere honetan aurrera egingo dogu horrek maileguk ikusten.

Testua: **Xabi Bilbao**

• **barrúnta (ad.)**: iyerri (nabaritu).  
—Bentáne ongo da zabalik ze hotza barrúntaten dot nik hemen.  
—Behingon barrúnta nendun zéozzer pástan dala ze isilik lotu ziren dának.

• **baliénte (izlg.)**: ahalegiñen bat egiten daun personeri esaten dako. Sarri esaten dake umeri.  
—Hámen datoz txirindulárik... háor Laiseka ta Landaluze: Aupa baliéntek!! Aurrera!!  
—Májo yan dozuz indaba dúztik, zu zara baliénte gero! Laster ingo zara mutill handi!

• **demánde (iz.)**: diskusiño (eztabaida).  
—Hónekaz bakerik eztau: alkartu ta áton hasten dire bata bésteaz demánden.

• **derrigor (adlg.)**: zéozzer gure zein

ez gure (nahitaez) egin behar danen esaten da. Sarriten erabilten da legek eta arauk aginduten daudenan ganera.

—Oiñ derrigor éron ber dozu automobile errebisíño pásaten.  
—Derrigor yan érein in dotzoz indabak.

• **eskas (adlg.)**: gitxi. Aditz modun bere erabilten da, gitxitu esateko:  
—Atlétiez eskas deku alaitasune aurten.  
—Lehen zénbet gure harrápaten genduzen karramárrok, baia asko eskastu dire ordútik hona.

• **fundaméntu (iz.)**: gánora.  
—Fundaméntu barik behar iñ ezkéron eztau zéiñik (zer eginik).  
—Hórrek suéten (eskatzan) dáuken fundaméntuez séiretarako bere ezta bázkalduko.

Zure publikitatea hemen  
Zure publikitatea hemen  
Zure publikitatea hemen

94 491 13 37

**Errotalde**  
ileapaindegia

**HARTU TXANDA TELEFONOZ!!**

**T: 460 38 90**

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO



**María Jesús**

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

**HARTU TXANDA**





gaizka escudero / basalbokoa

## Tostadak

**I**nauteriak gainean ditugu eta sasoi honetan ohitura izaten da tostadak jatea. Postre, gosari zein merienda goxoa da eta gainera oso erraz egiten dira tostadak. Hasteko, ipini sutan litro bat esne, bota azukrea eta kanela adar bat. Irakiten duenean basobete koñak gehitu. Bes-tetik, ogi sikua xerretan zatitu, ontzi batean sartu eta sutan eduki dugun esnearekin estali, zortzi bat orduz. Ondoren tostada bakoitza, irabiatutako arrautzetik pasatu eta frijitu. Amaitzeko, nahastu azukrea eta kanela ehotua, ondoren tostaden gainean bota. <sup>m</sup>

### osagaiak

ogi sikua • esnea (litro bat) • koñak • azukrea (15 goilarakada) • kanela



itsaso arana / jolastokikoa

## Verdejo mahatsa

**R**ueda jatorri izendapena duten ardaoak egiteko erabiltzen den mahats zuria da *verdejo*. Duero ibaiaren bazterrek eta Gaztela osoa mahats zuri gozo honez josita daude.

Gure txakolinarekin gertatzen zen moduan, lehen oso ardao eskasak eta zatarrak egiten ziren *verdejoaz*. Gaur egun, berriz, teknologia berrien abaintalak baliaturik, arrakasta handia daukaten kalitateko ardao gazte zuriak egiten dira verdejoaz.

Mahats honek ematen dituen ardaoaren ezaugarriak azpimagarriena euren aromen indarra da, oso intentsitate handikoak dira eta. Bistara kolore hori berdexka berezia dauka. Garraztasun eta mingostasun ikutu bat uzten dute beti ahoan oso afrutatuak diren ardao hauek. Amaitzeko, esan behar da hotz zerbituz gero oso erraz edaten direla. <sup>m</sup>



## Baserri taberna

la 40 urtez zabalik Algortako bihotzean



Cristina Barrero, Begoña Merino eta Urko Manzano

**Algortako** erdi-erdian dago Baserri taberna, Geltokiko plazan hain zuzen ere. Gaur egungo jabea Urko Manzano da, herrian ezaguna urte luzez Getxo Rugby Taldean ibilia da-eta. Orain dela lau urte hartu zuen Urkok tabernaren jabetza, baina asko eta asko aurreko jabearekin gogoratuko dira: Santi Guena. Izan ere, Santik ia 25 urte eman zituen Baserri tabernan behar-rean, jubilaria hartu zuen arte.

Zazpi lagun dabilta gaur egun Baserrin lanean *"ni barik, danak andrazkoak diru"* argitu digu Urkok. Sukaldean Begoña ibiltzen da eta bere rabek arrakasta handia izaten dute asteburuetan. *"Asko eskatzen diru rabak, bai, baina hemen egiten dugun Baserri pintxo ez da atzean geratzen"*. Galeper arrautza, hirugiharra, piper berde eta gorria eta txistorra

apur bat batzen dira pintxo gogoangarri honetan. Proba ezazue, ez zaizue damutuko.

*"Neguan sufritzen dugu hemen eta udan terraza ipinita, lan egiten dugu"*. Kexu azaldu zaigu Urko: *"Aulkiak eta mahaiak egunero ipini eta gero gorde behar ditugu. Turismoa bultzatu nahi dela esaten dute agintariak, baina baldintza hauekin guk ezin dugu terraza polit eta txukuna ipini"*. Poteoa galtzen ari dela eta 20 urteko gazteak non sartzen diren ez dakie-la esan digu Urkok. *"Ez dut uste dirua kontu denik. Guk, geure garaian, diru ezean gorriak hartzen genituen"*.

Garrantzitsua ere bada, euskaraz egiten dute Baserrin. <sup>m</sup>

**BASERRI. Telletxe, 3 - Algorta**

## JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



## Asado



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gauetz dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

**Aretxondo 14**  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**  
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



VIEJO

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI  
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

**KONTXI**  
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93

**G** gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25  
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29  
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58  
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14  
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA  
Aritluz z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

### BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

### GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

### aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz  
94 491 13 37

### [horoskopoa]

#### URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Urtarrilak ere hur dauka helmuga, eta oraindik zure tripak borobil itxura ez du galdu. Gabonetako betekadak zirela zenion hasieran, baina... dagoeneko aitzakia horrek sinesgarritasuna galdu du. Ibilaldi laburretarako behintzat hankak erabili!

#### AITZURRA


t



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Zein gertu, zein urrun. Geure buruak distantzia neurtzeko sistema ezberdinen dituela onartu beharko zenuke, metrikoa ez da bakarra. Hain urruti, hain hurbil. Sentimenduek eta gogoak ez dakite zenbakiz neurtzen. Eta, zu, zenbatera zaude?

#### GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Zure sentipenei adierazten utzi beharko zenieke. Hori ahulek bakarrik egiten dutela? Ez duzu gogoko estimuan daukazu edonork emandako besarkada? Beste horrek ere gogoko luke zurea! Poloak ere urtzen hasi direla jakinarazi dute, izotzgitza!

#### META

t



(Irailak 17 urriak 16)  
Batuzentzat arraroa, besteentzat ohiko. Ezezagunari esaten diogu askotan berezi, "ezezaguna zait" esateko beldur al gara? Auzi denen gainean iritzia ematea al da kontua? Asko gal eta min handia eman genezake. Aurreiritziak ez dira inoiz lagun min!

#### OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Opari hori beste batengan pentsatzen egin duzu. Ezusteko ederra izan da hartzailearentzat, baina ez zen berarentzat, eta zeuk badakizu! Zergatik jokatu duzu horrela? Galdeiozu zeure buruari, erantzuna badakizu, onartzeko ausardia daukazuenez da kontua.

#### HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Barregarri edo lotsatuta ez gelditzearren, dena kontrolpean edukitzen ahalegintzen zara: egoerak alde aurretik irudikatuz, berbaldien noranzko anitzak margotuz... Ezinezkoa da, ezinezkoa. Zoriontsuago izango zinateke hori ulertuz gero.

#### LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Poltsikoetako txanponak zenbatu... zero; kuxako aurrezkiak kalkulatu... gorri. Egia da, bai, ez zaitez betiko galdu, baina ez daukazu erosteko gaitasunik! Hori xuabe-xuabe esanda! Alabaina, lasai, helduko da-eta oportunitateko ordua!

#### HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)  
Olentzero joan zaigu... eta kantu horiek guztiak abesteari utzi iezaiozu behingoz! Urte berriko lehenengo hilabetea azken hatsa emateko prestatzen dabil eta badi-rudi zuk oraindik Gabonzahar gaueko mozkorraldiagaz jarraitzen duzula.

#### ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Asko altxoratzen zaizkizu aholku eske; ez dakizu zergatik. Agian zuk sekula gomendiorik ematen ez duzulako izango da. Ezkutuan dagoena azalarazten, onartu gura ez duten horretan arreta jartzen laguntzen diezulako izan liteke. Baliteke.

#### EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Harkaitza zara. Irribarra margoitu dioten burdinezko eskultura. Baina bizidun begiek azalarazten dute nor zaren eta zer esan gura duzun. Lastima gehiengook ninien hizkuntza ulertzen ez dugula. Irakatsi iezaguzu, eta guk urtuko dugu altzairua.

#### IRATZEA

t




(Abuztuak 18 irailak 16)  
Itxuiten gaudenean orratz luzeak gure aurkako borroka deitu duela sinesten dugu. Ostera, orratz argalena 60 segundu erritmo egonkor eta berdinean osatzen ditu beti. Ilargiak eta Eguzkiak ere lege berdina darabilte! Lilia ez da neguan loratzen.

#### NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Poema bat eskaini diozu eta "eskerrik asko" erantzun du. Olerki bat idatzi, ona ez bazen ere, eta "ondo". Maitasun begiradaz hitz egin, eta "zer pasatzen zaizu?". Mosu bat besterik ez zizun eman behar, eta ez, ez du asmatu. Zeuk erabaki...



## mungia OKINdegia

Algortan badaukagu  
artisaunen ogia  
izen eta jatorriz  
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar., zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gauoko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortziritako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

Soluzioak

V	I	A	V	R	H	O	Z				
O	L	M	E	T	I	P	A	E			
D	I	R	A	R	A	U	A				
A	R	A	R	A	L	I	Z	O			
A	U	T	A	K	I	Z	T	I			
S	A	Z	E	T	E	G	I	E			
T	O	A	B	I	A	N	B	T			
V	N	E	T	R	A	S	A	R	A		
K	N	O	Z	I	G	A	O	L	A		
N	U	G	V	L	I	Z	I	B			

1											
2											
3											
4											
5											
6											
7											
8											
9											
10											

Taula honek hamaika beltzune ditu



asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Donostiako semea
- Lezaman trebatzen da
- Realarean aurkako azken partidaren gol bi sartu zituen

> Aurrekoaren erantzuna: Jose Elorrieta

> Irabazlea: **Andres Alkalde (Urduliz) \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Freexkue liburua

www.argia.com

Portu Zaharreko eskolako haurrak, 1965

Agate Deuna ganean daukagun honetan orain dela 40 urte Algortako kaleetara kantatzera atera zen ikasle talde honen argazkia heldu da gure erredakziora. Portu Zaharreko eskolako haurrak dira 1965eko Agate Deuna egunean. Argazkian, goiko lerroan azaltzen direnak artean hamar urte zeuzkaten, behekoan daudenek, berriz, bederatzi. Oso ikastetxe herrikoia zen Portu Zaharrekoa; dirua zeukatenek ordaintzen zuten eta besteek ez. Handik ehunka algortar pasatu zen, garai hartan ia ikastetxe bakarra zen eta.

Argazkian agertzen direnak afari bat egiteko laster atzera elkartuko direla jakin dugu. On egin! m

Goian: J. P. Olaskoaga, J. M. Orcasitas, Edu Gastaka, Aitor Ansoleaga, Julen Zulueta, Angel Alonso, Josean Zubizarreta.

Behean: Armando Arranz, Manu Urretxua, Xabier Amezaga.



gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

**GALDER PEREZ** > kazetari eta antzerkilaria

## “Herrietako jende arrunta miresten dut”

Testua: **Bea Majuelo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Mila koloretakoa, baina batez ere gorria.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Behingoz, paper tragiko bat egitea gustatuko litzaidake. Beti ibili naiz-eta komedia egiten.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Hainbat eta hainbat herritako jende arrunta miresten dut nik.

**Zure jakirik gogokoena.**

Dilistak ikaragarri gustatzen zaizkit.

**Aitor dezakezun bizio bat.**

Bizio asko ditut, erretzea da horietako bat.

**Oporretara joateko lekurik aproposena?**

Kotao, Tailandiako ugarteetako bat da.

**Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?**

Traizioa.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Ba... ametsetan bezala bizi ahal izatea!

**Lo egiteko ezer janzten al duzu?**

Batzuetan bai eta beste batzuetan ez; konpainiaren eta tenperaturaren arabera...

**Zer gabe ezin zaitezke bizi?**

Musikarik gabe, beharrezkoa dut musika bizitzeko.

**Musika talde bat?**

Yann Tiersen; *Amelie* filmaren soinu bandaren egilea da, besteak beste.

**Zer berri gustatuko litzazuke entzutea albistegi batean?**

Gure herria askea dela zentzu guztietan.

**Zure azken erokeria.**

...Jajaja... erokeriak ez dira publikoki kontatzen!

**Sineskeriarik ba al daukazu?**

Boladaka izaten da. Azkenaldi honetan adibidez, kolore horiarekin hasi zait paranoia. Ezin naiz antzetzokira atera horiz jantzita. m

**LABURREAN**— Bilbo, 1975. Bilbotarra jaiotzez eta izatez ere bai. Kazetaritza ikasketak egin zituen Leioan, baita Arte Dramatiko ikasketak ere Deustuko Artebi eskolan. Irrati gizona izan da denbora luzean, hemeretzi urte daramatza Perezek uhinetan barrena lanean, besteak beste, Radio Euskadiko *7 calles trinquete* irratsaio ezaguneko esataria izan da. Gaur egun, Bilbo Hiria irratiari *Piperpolis* kultur magazina egiten dabil Ane Zabalarekin. Kazetaritza zein antzerkigintza alorrean eroso sentitzen da Perez. *Cocidito Madrileño* Euskal Herri osoko antzokietan arrakasta lortu duen antzezlanean ikusi ahal izan genuen. Orain, *Hiru txeritxoak* obra zuzendu berri du, abenduan estreinatu zen eta udaberri aldera gaztelaniaz aurkezteko asmoa du. Amaitzeko, urtarrilaren 21etik 24ra bitartean Arriaga Antzokian aurkeztuko den *Todos nacemos vascos* antzezlanerako gidoiaren moldaketa lanetan ibili da Eloi Beatorekin batera.



**1+1=bi** BENETAKO ELEBITASUNAREN ALDE  
POR UN BILINGÜISMO REAL



**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO

Euskara zerbitzua



**zuk jarri ideia,  
guk tresnak jarriko ditugu**



autoenplegu-zerbitzuak



**BBK GAZTE LANBIDEAN FUNDAZIOA**  
Ledesma 4-4.a 48001 Bilbo • Tel: 94 423 26 12

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

  
gaztelanbidean  
**bbk**